

'Langileok Palestinarekin', lanuztea U-15ean

Palestinako herriari langile klase osoaren elkartasuna adierazi, eta Israel burutzen ari den genozidioa salatu nahi da. Sakanan elkarretaratze deialdiak daude / 8

Txistorrari eskainitako egun betea hartzeko guztiguztia prest dago Arbizon / 12



Bakaikuko dendak hiru urte bete ditu eta hausnarketa prozesua eginen dute udazkenean / 6


Uharte Arakilgo Udalak hirigintza plana berriari aurreneko oniritzia eman dio / 9

Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia igandean, lurraldetasuna aldarrikatzeko / 16


Campos, Garmendia eta Larraza, Nafarroako Torneoko Paleta Goma txapeldunak / 19

Lazkozek irabazi zuen lehen saioa, Karasatorre bigarren eta bihar Granizoren txanda da / 22

Guaixek, Lacturalek eta Laura Estetikak 2025eko Udako Lehiaketako sariak banatu dituzte / 23



Ane Martijak abestia eta bideoa kaleratu ditu: 'Iraila'; doinu elektronikoagoak sortu ditu / 21



Sakana, motorzalea

Urbasako Igoerako arranzpata hamar pilotu sakandar lehiatu ziren / 18-19



Garnatxa motako mahatsa Bakaikuko Goikofelizenekua etxean. UTZITAKOA

Mahatsondoen itzalean

Udazkena bertan dela, baso, mendi, ubelde eta erreka bazterretako zuhaitzak ikuskizuna urteroko ikuskizuna eskaintzen hasiko dira aurki. Ibarreko hainbat etxetan ere gauza bera gertatuko da, mahatsondoek emanen diete udazken ukutua

Alfredo Alvaro Igoa ZUHATZU / LIZARRAGABENGOA / BAKAIKU
Zuhatzuko Escudero etxeak mahatsondo ederra du. Haren berri Ignacio Arbizu Gabirondok eman digu: "Thabarko frontoiaren ondoan dagoen Zurgin etxeko mahatsondotik aldaxka batzuk hartu eta hemen lurrean jarri genituen duela 45 urte". Lastailean egin zuten hori. Azaroan edo abenduan ere egin daitekeela azaldu du. "Thabarko mahatsondoa han dago oraindik, betidanik ezagutu dut. Hark ehun urte baino gehiago izanen ditu ziurrenik".

Lizarragabengoako Txomiñena etxeko Kontxi Lakuntza Arratibelek esan digunez, "zalea naiz. Fruta arbolen bat jarri nahi nuen, denbora pasarako. Gustatzen zait mahatsondoa izatea eta, horregatik, daukat". Aldamenean duen Altxagan etxean bizi zen arbizuar-etxarriar bikoteak eman zion mahatsondo aldaxka. Duela hamar-bat urte jarri zuen balkoi azpian. "Kasu gehiegirik ez nion egin, ea zer gertatzen den. Eta hartu zuen".

Bakaikuko Goikofelizenekua etxekoa da Imanol Igoa Lopez.

Eraikineko fatxada guztia hartzen duten bi mahatsondo ditu. Eta zeharreko aldean beste bat. Igoak azaldu duenez, "makina bat urte daramate hemen mahatsondo horiek, gu ailegatu baino lehenago hemen zeuden. Ate ondokoek ehun urte baino gehiago badiutuzte. Zenbat? Ez dakigu. Zeharrekoak ere ehun pasa izanen duela uste dugu". Igoak gaineratu duenez, "mahatsondoak hostoa ateratzen duenean udan fatxadan itzala egiten du. Etxea freskatzeko ere erabiltzen zutela esaten zuten".

Arbizuk argitu duenez, "hobekuntza handia izaten du eta oso erraz ematen dute fruitua, mahatsa. Oso goiz hasten dira ematen, bizpahiru urtetara". Gauza bera berretsi dute Lakuntzak eta Igoak.

Lizarrengotarrak moskatel mahats barietatea du. Moskatela eta garnatxa bakaikuarrak. Arbizu iturmendiarrak da eta berak sortetxean beti ezagutu du mahatsondoa. "Egurrezko balkoia zuen. Aitak hura bota eta porlanezkoa egin zuen eta orduan, duela 40 bat urte, kendu zen mahatsondoa. Bestela, beti mahatsondoarekin ezagutu dut gure etxea". Azaldu duenez, Zuhatzu eta Iturmendiko mahats mota bera zen: moskatela. "Ez dakigu, eta inork ez digu esan, zein moskatel mota izan daitekeen".

Mahatsondoa hazi ahala "ez erortzeko" lotzen joan beharra dagoela azaldu du Arbizuk, "karga handia hartzen baitu". Azaldu duenez, "lehen balkoi guztian lotuta zegoen mahatsondo izugarria zegoen. Baina kendu behar izan genuen, amorragarria zen. Askok hazten den landarea da". Mahatsondoa ez du gidatu lizarrengotarrak, "bere kabuz joan da".

Uzta

Igoak azaldu duenez, "hegoaldeko fatxadan askoz hobe ematen du. Mendebaldera nahiko kaxkar. Eta ekialdekoan baino hobe ematen du hegoaldean, bai". Arbizuk gaineratu duenez, "urteen arabera mahats aleak handiagoak edo txikiagoak ematen ditu". Ziurtatu duenez, "mahats killuak mahatsondoan zenbat eta denbora gehiago pasa, gozoagoak dira". Bakaikuarrak esan duenez, "moskatela jateko oso-oso gozoa da. Baina ez du hainbeste ematen".

Lakuntzak adierazi duenez, "urteekin egun erdia atean pasatzen dut eta mahatsa probatzen ibiltzen naiz. Min xamarra badago, hor gelditzen da". Halakotan mahatsa alea hartzen du. "Pozkilloa hartzeko moduan ez dira ontzen. Sobra ere, denak ez

ditut berdin ikusten, bestela pozkilloa hartuko nuke". Arbizuk esan duenez, "pokilloren bat pixka bat horitu dela ikusten dugun momentuan hartzen dugu, alea, mahatsondotik ahora zuzenean. Ederra da!"

Lizarrengotarrak argitu duenez, "aurten berandu hasi nintzen mahatsa jaten, eta listo bukatu nuen. Duela hilabete-edo, aurreneko mahatsak jan nituen, eta atzenak duela 15 bat egun". Agorrian eta irailean jaten dituzte mahatsak Zuhatzun. "Lastailean izotzik edo bestelakorik ez bada, mantentzen da". Etxekoak dira moskatel mahats hori jaten dutenak. Ez dute inoiz ardoa egiteko asmorik izan, "horretarako, gainera, kopuru handiak behar dira". Bakaikuarrari kontrako gertatu zaio: "azken urteetan behar baino lehenago bildu dut uzta. Azken bi urteetan Asiako erlamin asko etortzen hasi da. Eta pitteka-pitteka jaten hasten da, eta mahatsa galdu egiten da. Aldiren batean mahatsa hartzerakoan erlaminen batek koxka egin dit". Gaineratu duenez, "txoriei asko gustatzen zaie". Baina gutxi jaten dutela dio Arbizuk. Baina erlaminekin kontuz ibili beharra dagoela baieztatu dute Arbizuk: "batzuetan mahatskilluen artean agertzen dira". Lakuntzak jakinarazi duenez, mahats aleren bat hartzera joan eta "erleren bat ailegatu da pikatzera. Eta erlaminak ere egoten dira mahats artean".

"Nahikoa ateratzen denez", jasotako mahats uzta etxean jan eta senide eta lagunaren artean banatzen du bakaikuarrak. Hala egiten dute beste bi mahatsondoen jabeek. Oraindik ez dute ardorik egin.

Zaintza

Goikofelizenekua etxeko bi mahatsondoetako bi hegoaldera begira daude, bestea ekialdera. Azken horrek bi adar ditu, bata ekialdera du eta bestea hegoaldera. Mahatsondoa "iruzki" aldera du jarria Lakuntzak. Alde bat ekialderantz eta bestea hegoalderantz.

- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

honekin are gehiago. Gainera, abazpiarekin eta bestelakoekin babes ona du", ziurtatu du Arbizuk.

Arbizuk nabarmendu duenez, "izozteak baino kaltegarriagoak dira erlainoa eta ur hotza. Maia- tzeke euri ur hotzak kalte handia egiten dio". Lakuntzak mahatsondoari ez dio ezer botatzen, "datorren bezala. Begiratu bai, asko. Ea garaia iristen denean jan dezakedan. Baina, besterik? Ezer gutxi". Igoak aitortu duenez, mahatsondoei ez diete inolako tratamendurik ematen. "Natural- ki ateratzen dena, ongi". Bakaikuarrak nabarmendu duenez, mahatsondoek ez dute ureztatu beharrik. Haiek, behintzat, ez dute halakorik egiten.

Gaitzak

Igoak esan duenez, "mildiu eta halako gaitzei aurre egiteko mahatsondoa eguteraan egotea asko laguntzen du. Gainera, hostoak ez bustitzeko teilatua- ren abazpia ere badu. Eta eguz- kitan egonda, pareta berotzen da, eta mahatsak hori behar du, beroa". Eta gaineratu duenez, "garnatxa gaitzei aurre egiteko sendoagoa da". Arbizuk Iturmendin beste mahatsondo bat du eta han mildiu gaitzak jo du eta mahatskilo guztiak belztuta daude. "Hura azken urtetan ez da ongi ematen ari", gaineratu du. Zuhatzukoa "aur- ten nahikoa ongi kontserbatu da". Lizarregotarrak azaldu duenez, "aurten ere nahikoa mahatsa ekarri du, mahats pozkillo ederrak. Baina oso gutxi jan dugu. Nik bai, nahiko, baina gainerakoek... Itxuran zegoen, baina gero, oso denbo- ra gutxian, bizpahiru egunetan, kitto, hondatu egin ziren" Poz- killoak mahatsondoan bertan marroitu eta ximeldu egin dira. Mahats azal ilun batzuk beste- rik ez dira gelditzen. "Aurten adina ez da hondatu bestetan".

Aurreko urteetan mahatsa izugarri eta sano bildu dute Goikofelizenekua etxean. "Aur- ten gaitz bat dugu. Galdetzen ibili naiz. Arabako gizon batek esan dit haiek ere egsita dau- dela. Hark ardoa egiten du eta gaitz horrekin mahatsondo asko lehortzen ari zaizkio. Hostoa ateratzen du, baita mahatsa ere. Bakaikuko festen inguruan marroitzen hasi zen


eta mahatsa bi astetan kixkal- du egin zen. Nabari du landa- rea bizirik dagoela, baina ez dakigu zer gertatuko den hel- du den urtean. Honek itxura txarra du". Gizon harrek maha- tsondoa laguntzeko modu bat erakutsi zion Igoari eta hori probatuko du. Kasurik oke- rrenean mahats kima eraman zutenen adar bat jasoko luke Igoak eta, atzera ere, maha- tsondoa landatuko luke.

Kimatzea

Mahatsondoaren adarrak no- ranahi ez joateko kimatu beha- rra dago. Bakaikuarrak azal- du duenez, mahatsondoak eskatzen duten lan gutxietako bat da kimatzea. Kimaketa egiteko garaian nork bere irizpidea du. Negu betean, ilbeltzean, kimatzen du maha- tsondoa Lakuntzak. Kimatu- tako adarrak gordetzeko ohi- turarik ez du. Arbizuk "zen- baitetan San Jose egunez. Bakarren batek esaten zuen egun horretan kimatuz gero, ondoren ez zirela euliak etor- tzen. Ez dakit egia edo gezurra den. Hemen bagaude aurretik ere kimatu izan dugu, baina nahikoa berandu kimatzea gustatzen zaigu. Ordurako izozteek ez dute mahatsondoa hainbeste jotzen". Udazkene- ko lana da kimaketa Igoaren- dako, hostoa erabat galdu duenean. "Lehen behin kima- tzen genuen. Azken urteetan laguntzen ari diot udan beste kimaketa bat eginda. Horrela mahatsa hobe hazteko eta on- tzeke".

Bai, Arbizuk, bai Lakuntzak, bai Igoak beste kimaketa mota bat ere egiten dute, "mahats- kiloak eguzkitan egoteko" esan du Arbizuk. Igoak azaldu duenez, "azken urteetan laguntzen ari natzaio udan beste kima- keta bat eginda. Horrela maha- tsa hobe hazteko eta ontzeko". Lakuntzak esan duenez, "behar ez direnak moztan ditut behar bada. Zeharrean dauden landa- reak ureztatzeke, traba egiten badu, adarra moztan diot. Beharbada horrek egiten dio kalte", kezka azaldu du.

Moztutako adarrak sua pu- teko gordetzen dituzte, "baina gutxi du" argitu du Arbizuk. Bakaikuarrak azaldu duenez, "jende askori eman izan dizkiot kimatutako adarrak, lur- rean jarri eta landare berria sor



Ignacio Arbizu Gabirondo Zuhatzuko Escudero etxe parean.



Kontxi Lakuntza Arratibel, Txomiñenia etxekoa.



Imanol Igoa Lopez Goikofelizenekua etxe aurrean.

tzeko. Kimatu eta berehala pasatzen diet, lehenbailehen. Lurrean sartu eta, kasurik egin gabe, sustraiak bota die batzuei. Lagun bati joan zen urtean eman nion eta hark txindilekin egindako urarekin ureztatu ditu, sustraiak erra-

zago ateratzeko. Nahiko erraz hartzen du". Bestela, "lehen- gusua artzaina da eta arkume saiheskiak prestatzeko erabi- tzen ditugu".

Kanpora joaten denean La- kuntza "beti begia mahatsondo edo arrosetara, lana jartzeko

niri eta ingurukoei". Landareak asko gustatzen zaizkio. "Orain ere aitzur txiki batekin aritzen naiz. Semeak prestatzen dit baratza. Entretenitu egiten naiz". Arbizuk laburbildu duenez, "mahatsondo bat baino gauza errazagorik ez dago".



ASTEKOA

ANE BAÑASCO EGURZA

Maitasun ikerketa

1997an, Arthur Aron psikologoak ikerketa bat argitaratu zuen: intimitatea sortzeko diseinatutako 36 galderei erantzunez, bi ezezagun maitemindu egin zitezkeen. Ideia oso ezaguna egin zen, planteatzen baitzuen maitasuna ez dela beti kasualitatetik sortzen, baizik eta zaurgarritasun partekatua bidez ere landu daitekeela. Duela gutxi esperimentu hau probatu nuen lagun batekin. Barre artean hasi ginen, jolas soil bat bezala, laugarren galderan negarrez hasi eta eztarrrian korapiloa sentituko genuela imajinatu gabe, modu horretan irekitzea zein

"HOR ULERTU NUEN MAITASUNA EZ DELA ERROMANTIKORA MUGATZEN. LAGUNEN MAITASUNA OSO GARRANTZITSUA DELA"

sakona izan daitekeen deskubritu genuelako. Galderak ez dira sinpleak: biluztera behartzen zaituzte, beldurak, oroitzapenak eta desioak partekatuzera, askotan adierazten ez direnak, ezta sakonki ezagutzen dituzunekin ere. Hor ulertu nuen maitasuna ez dela erromantikora mugatzen. Lagunen maitasuna oso

garrantzitsua dela, sostengatzen zaituena, eta maitatua eta lagundua sentiarazten zaituena. Hainbat urtetako adiskidetasunaren ondoren ere, galdera horiek aukera eman ziguten ezagutzen ez genituen bestearen txokoak aurkitzeko. Jadantik egina zirudien bide batean beste urrats bat egitea bezala izan zen. Azkenean, esperimentuaren gakoa ez zen maitemindu gintezkeen ikustea, besteen aurrean irekitzea gogorra dela gogoratzea baizik. Ezezagun batekin bertigo sor dezake; lagun batekin ustekabeko loturak sendotu ditzake. Izan ere, garen bezalakoak garenez, beti dago elkarrekin hazteko aukera.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Presoak eta biktima GUZTIAK

SARE HERRITARRA

Saretik askotan azpimarratzen dugu konponbidea behar dugula konfrontazio sufrimendu urteek utzi dizkiguten ondorioetarako. Ondorio horiek konponduz, bakea eta elkarbizitza eraikitzen ari gara, pixkanaka.

Zoritxarrez, hemen, duela hamabost urte ETA praktikan desagertu bazen ere, ez da hartu indarkeria sufritu duten beste herrialde batzuetako eredua. Horrexegatik esaten dugu bakea motelago eraikitzen ari garela.

Oraindik motibazio politikoko 126 preso daude Euskal Herriko eta Frantziako kartzeletan. Preso horietako gehienek 20 urte baino gehiago daramatzate betetzen, eta dagoeneko hainbat dira 30 urtetik gora dituztenak.

Horiez gain, 18 iheslari zein deportatu.

Euskal Presoen kolektiboa osatzen duten 100 presoetatik, 63 espetxeko bigarren graduak daude, 44 berriz hirugarren graduak. 35 dira legeak eskatzen duen zigorra betetzeagatik beren kondenak erregimen irekian bete ditzaketenak, eta horiei beste 11 gehituko litzaizkieke, 46 guztira, egoera berean egongo liratekeenak, Frantziako Estatuan betetako kondena zenbatzen bazaie (hala dio legeak, baina askotan oraindik ez dira iritsi), eta horietako asko gainera, kondena betetzeko ¾ parteak gainditzeagatik, baldintzapeko askatasunean egon litezke.

Horregatik esaten dugu Zigor Zuzenbidearen eta Espetxe Zuzenbidearen helburua ez dela bakarrik

justizia ematea, baizik eta pertsona guztien eskubideak babestea ere, presoak barne, eskubideen subjektu diren aldetik.

Espetxe araudi arrunta aplikatzeak ez dakar biktimen duintasuna kaltetzea. Biktima guztiek dute memoria, egia, aitortza eta erreparazioa eskatu eta exijitzeko eskubidea.

Indarkeria guztiek utzitako ondorio txarren gaia ixteko, nahitaezkoa da zuzenbide estatuak berak erabilitako salbuespenak ere desagertzea. Horretan sakontzeko, eskubide urraketa guztiei heldu beharko diegu, mugarik ezarri gabe; indarkeriaren erabilerak eragin dituenaz hitz egin behar da, baina Estatuaren erantzunak sortutakoez ere bai.

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko elkarrizketa guztiak

guaixe.eus/irratia/hizketan



HIZKETAN



guaixe

komunikazio taldea

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Laura Olmos Aristorena
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Maidier Perkaz Urdiain
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Pabli Flores

Kolaboratzailea:
Galdier Gonzalez

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ur hornidura sarea digitalizatzeko pausoa

Sakanako Mankomunitateak eta Etxarri Aranazko Udalak dirulaguntza bana lortu dute, 596.255,47 euro guztira, aurtan jasoko dituztenak. Altsasu erreserban gelditu da. Eta Uharte Arakilen lanak hilaren 2an hasi zituzten

SAKANA

Gobernuak 20.000 biztanletik beherako toki entitateetan uraren hiri zikloa digitalizatzeko dirulaguntzak banatu ditu eta bana jasoko dute Sakanako Mankomunitateak eta Etxarri Aranazko Udalak. Erakunde bakoitzak eginen duen inbertsioaren %90 jasoko du laguntza gisa.

Mank osatzen duten hamabost udaletatik hamaika dira Ur Zerbitzuko kide: Arakil, Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. Baina Mank-eko presidente Aitor Larraza Carrerak argitu duenez, "Mank-ek zazpi herritan bakarrik du goi eta behe ur horniduraren ardura: Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutian". Zehaztu duenez, zazpi herri horietako bostetan eginen da edateko uraren banaketa sarea sektoreka banatzeko lanak: Irurtzunen (hiru sektore), Lakuntzan (bi), Arbizun (bi), Urdiainen (bat) eta Olatzagutian (bi).

Larrazak azaldu duenez, "bost herri horiek aukeratu ditugu erregistratu gabeko ur portzentaje handiena dutelako eta ur kontsumo handiena dutelako. Lanak eginda, ur ihesak errazago atzemateko aukera izanen dugu". Mank-eko lehendakariak gaineratu duenez, Bakaikun eta Iturmendin aurrerago eginen dituzte lanak. Larrazak gaineratu duenez, "Lakuntzako etxeetan teleirakurketa duten kontagailuak jarriko ditugu proba pilotu gisa". Mank-ek irrati seinaleen bidezko ur kontsumoaren berri ematen zuten ur kontagailuak jarri zituen zazpi herri horietan 2012an. "Baina teknologia ez da duela 13 urteko bera. Proba egin nahi dugu. Nafarroako beste herri batzuetan ere jartzen ari dira. Kontagailu berriek faktura egiteko irakurketa erraztuko dute". Lakuntzako lan hori heldu



Mutiko bakaikuarra iturri parean. ARTXIBOA

"SEKTORIZAZIO LANAK EGINDA UR IHESAK ERRAZAGO ATZEMATEKO AUKERA IZANEN DUGU"

den urteko garagartzaroaren 30erako despedituta egon behar du. Aipatutako lanen aurrekontua 333.331,23 eurokoa (BEZik gabe) da, dirulaguntza, berriaz, 299.998,11 eurokoa.

Bestetik, Etxarri Aranazko Udalak hornidura sistema digitalizatzeko eta etxeetan teleirakurketa duten kontagailuak jartzeko asmoa du eta horretara 329.174,84 euro (BEZik gabe) bideratuko ditu. Egiteko horietarako gobernutik 296.257,36 euroko laguntza jasoko du.

Erreserban

Dirulaguntza deialdian ibarreko hiru proiektu onartu ditu foru administrazioak. Baina guztira 1.846.200,00 euroko diru poltsa zuen deialdiak. Ondorioz, toki erakunde batzuk egindako eskaerak erreserban gelditu dira, eta horien artean Altsasukoa

dago, laugarren postuan. Altsasu Udalak edateko uraren hornidura sarea digitalizatzeko 105.820 euroko (BEZik gabe) proiektua du esku artean. Toki erakunderen batek uko egin edo deialdiko diru poltsa handituko balitz 95.238 euroko dirulaguntza jasoko luke Altsasukoa Udalak.

Dirulaguntza deialdi hori Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoak, NextGeneration UEK, finantzatzeko du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan.

Uharte Arakil

Etxeetan dauden 562 ur kontagailuak kendu eta urrutitik irakur daitezkeen batzuekin ordezkatzeko lanak lastailaren 2an hasi ziren. Ciaqua gestion del agua SM enpresako langileak ari dira lan hori egiten. Gainera, honako eginen ditu: Amurgingo ur hornidurarako punpak berritu; ur sarea lau sektoretan banatuko du eta ur hornidura egoki kudeatu ezik eta ur kontsumoaren optimizaziorako urrutiko kudeaketa sistema ere jarriko du. Aurrekontua 253.292,34 eurokoa (BEZ barne) da. Udalak Europako dirulaguntza du.



Autoak Berria kalean aparkatuta. ARTXIBOA

Irurtzongo Udalak pasabide edo badoen ordenantza du

Heldu den urtearen hasierarekin batera indarrean sartuko da

IRURTZUN

Irurtzongo Udalak badoak, ibiak edo pasabideak arautzeko ordenantza onartu du. "Herriko hainbat eremutan arazoak zeuden. Jendeak bere ibilgailuak auzokoan bajearako atearen parean aparkatzen zuen. Hori eragozteko, bajearako jabeek bere ibilgailuak kanpoan uzten zituzten eta aparkatzeko arazoak sortzen ziren", azaldu du Unai Razkin Iriarte alkateak. Horregatik udalak erabaki zuen ordenantza egitea. Hainbat herritako ordenantzak aztertutik, esaterako, Bera edo Lesakakoak. "Nahiko ondo funtzionatu du herri horietan". Udalaren asmoa da ordenantzaren berri emateko herritarrekin bilkura bat egitea hilabete honetan.

Behin ordenantza indarrean dela, bajearen pasabideko plaka jartzen duenak autoa barruan gorde beharko du, ezin izanen du kalean, bajera edo etxe aurrean utzi. Jakina, jabeek ezin badute badoa duen bajera parean aparkatu beste inork ere ezin izanen du han aparkatu. Alkateak argitu duenez, "ibia ez da ez aparkatzeko jarritako seinalea. Ibilgailua zure bajearekin ateratzeko edo sartzeko erreserba bat da, ibilgailua atera eta sartu ahal izateko pasabide baimena da".

Ordenantza onartuta ere, Irurtzongo Udalak ez du traban dauden ibilgailuak kentzeko garabirik. "Ibilgailuaren batek bajera parean aparkatzen badu, bajera jabeak hots egin eta Foruzaingoak edo Guardia Civilak isuna

jarriko diote ibilgailuaren jabeari". Orain arte agenteek ez zuten isunak jartzeko modurik, baina ordenantzak emanen die. Autoak bajearekin gorde beharko direnez, aparkatzeko espazio batzuk libre gelditu beharko lirakeke.

Energia komunitatea

Irurtzongo liburutegiko teilatuan dauden plakak eraikina bera eta udaletxea argindarrez hornitzen ditu. Frontoiko eguzki plakek sortzen duten elektrizitatea kiroldegia, pilotalekua eta eskolarako da. Musika eskolakoak kultur etxea, Larrazpi gazte elkarte eta musika eskolarako argindarra sortzen du. "Eskola eta musika eskola udan gelditu egiten dira, eta, aldi berean, igarilekua zabaldu. Ditugun soberrakinak igerilekuarekin nola lotu aztertzen ari gara", jakinarazi du Razkinek.

Bestalde, udalak 2026an beste instalakuntza fotovoltaikoa jartzeko memoria prest du. "Kiroldegiko teilatua edo eskolako erabiltzea aztertzen ari gara. Hori energia komunitatearen baitako proiektu baterako litzateke. Baldintzak eta bestelakoak aztertzen ari gara orain. Herritar eta dendarien parte hartzea izatea gustatuko litzazuke. Baina oraindik luze joko du".

Igerilekuan egindako lanengatik, agorrilaren 15ean zabaldu ziren. Sasoia despedituta, taberna eta terrazarako sarbidea irisgarria izateko arrampa egiten edo igerilekuaren inguruko beldia txukuntzen hasi dira.



Dendak bere erabiltzaileei eskainitako auzatera bakaikuar asko joan ziren. UTZITAKOA

Bakaikun erosketa saski bete amets

Herri kooperatiba batek sustatutako Bakaikuko dendak hiru urte bete zituela ospatu zuen larunbatean. Bazkide eta herritarrekin kooperatiba finkatzeko prozesua eginen dute udazkenean

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

Lastailaren 6an, astelehenean, hiru urte bete ziren Bakaiku denda zabaldu zela. Hori ospatzeko, Bakaikuarrok herri kooperatibak bertako produktuez osatutako auzatea prestatu zuen eta dendako erabiltzaileek eskaini zien larunbatean. Goizetik gerturatu ziren dendako erabiltzaileak, baina jende gehien

eguerdian elkartu zen. Dendaren parean jarritako aukietan eseri eta mahaian zeuden zizka-mizkak jan bitartean hizketaldi ederrak izan zituzten. Hainbat bakaikuar efemeridearekin harrituta zeuden, hiru urteak azkar pasa zaizenaren seinale. Dendako erakuslelhoan urteurrenerako aukeraturako leloa irakur daiteke: *hiru urte, denona, guztiontzat*.

Larunbatean eskainitako auzate horrekin kooperatibako arduradunek "komunitateak egindakoari eta egindako ibilbideari aitortza" egin nahi izan zion. Eta, batez ere, "azpimarra jartzeko egiteko daudenetan. Izan ere, herri kooperatiba, batetik, herriari zerbitzuak eskaintzeko sortu zen eta, bestetik, herri bizigarriagoa sortzeko.

Pauso asko emateko daude, eta eman nahi ditugu".

Kooperatibako kideek azaldu dutenez, "dendak osasun ona du, pitteka gero eta erabiltzaile gehiago ditu. Hilabetero salmentak gora egiten du. gure ustez hiru urte oso onak izan dira". Dendaz arduratzen diren bi langile bazkide daude, Edurne Rivera Elso eta Arantzazu Zabala Lakuntza. Haiek denda astegunetan goiz eta arratsalde zabalitzen dute 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era, eta larunbatean goizeko ordutegia du.

Hasieratik Bakaikuko dendaren arduradunen nahia izan da bertako hornitzaileekin lan egitea. "Horretan pausoak ematen ari gara. Sakanakoekin harremanak hobetu behar ditugu. Eta ibarrean ez dauden produktuak lortzeko Nafarroako ekoizleengana jo beharko dugu".

Prozesua

Bakaikuarrok herri kooperatibak gaur egun 135 bat bazkide ditu, tartean udala eta elkarteak. Arduradunek azaldu dutenez, "herri kooperatiba finkatu, indartu eta erronkak zehazteko prozesu emankorra egin nahi dugu udazkenean". Zehaztuko dituzten artean daude kooperatibaren izaera gehiago finkatzea, bazkide gehiago lortzea eta etorkizuneko estrategia finkatzea. Prozesu horretan bazkideak eta bakaikuarrak parte hartzea nahiko lukete kooperatibako arduradunek. Hausnarketa prozesua aurrera egiten laguntzeko kooperatibak Olatukoopen laguntza izanen du. Ekonomia Sozial Eraldatzailean jarduten duten kooperatibek, elkarrekin eta beste hainbat erakunde komunitarioek osatzen dute Olatukoop, eta Bakaikukoa kide da.

Adibidea

Azken hiru urtetan Bakaikuko herri dendaren esperientzia beste herri eta erakundeendako adibidea izan da, "Euskal Herrian oso esperientzia berritzailea baita". Hainbat herritako ordezkariak etorri dira Bakaikura dendaren berri bertatik bertara jasotzeko. Esaterako, Aginakoak asteartean izan ziren, eta hilabete honetan Erreterria eta Aresokoen bisitak espero dituzte. Olatukoopen bidez bisitari kataluniarrak ere hartu izan dituzte Bakaikun. Beste herri batzuetara ere joan izan dira kooperatibako kideak haien ekimenaren berri ematera. Gainera, kooperatibako arduradunek UEUK, Jakinek eta Usurbilgo Udalak antolatutako *Kooperatibismo bat komunitateari begira: lurraldeetako beharrei erantzuteko ereduak zabalitzen* jardunaldian parte hartu zuten garagarrian. Hartan ere beraien esperientziaren berri eman zuten bakaikuarrek. Herri kooperatiba gehiago sortzen badira, etorkizunean sarea eratzea dute buruan.

Premia bati erantzuna emateko sortu ziren Bakaikuarrok herri kooperatiba eta denda. Aurretik herrian Kontxi Etxeberria Solisek zuen denda, baina jubilatuta eta denda 2022ko otsailaren 28an itxiko zuela jakinarazi zuen herrian. Horri buelta emateko sortu zuten kontsumitzaileen eta zerbitzuen kooperatiba.

"KOOPERATIBA FINKATU, INDARTU ETA ERRONKAK ZEHAZTEKO PROZESUA EGIN NAHI DUGU"

Sakanak lantegia hurrengo hilabeteetan handituko du

Epe motzera ez, baina ekoizpena handitzean, epe luzera, kontratazioak izanen dira


LAKUNTZA

Sakana Group kooperatibak bere 50. urteurren ospakizunak despetitzeko erakunde ekitaldia antolatu zuen pasa den ostiralean, bertan Nafarroako agintari nagusiek izan ziren. Kooperatibak

jakinarazi zuenez, 2.000 m²-tan handituko du lantegia. Mekani-zazio pintura eta bidalketa nabeen arteko espazioak estalita lortuko dituzte 2.000 m²-ak. Ekoizpen prozesuan edo bukatzean dauden piezak modu egokian lantzeko

balioko dute espazio horiek. Lantzei aurki ekinen diete.

Kooperatibak beste iragarpen bat egin du: 25.000 m²-ko eremu baten behin betiko birkalifikazioa lortu du. Espazio hori lantegiaren eta Arbizuko mugaren artekoa da. "Espazio horrek, epe ertainean, gure ekoizpen ahalmena are gehiago handitzea ahalbidetuko digu", aitortu zuten, eta lursail horien etorkizuneko erabilera merkatuaren eskariaren arabera aztertzen ari direla berretsi zuten.



Kooperatibako ordezkariak eta Nafarroako agintariak. UTZITAKOA



Pasa zaitez autobusera eta gozatu bidaiaz



Albaolaren esker ona Sakanari

Albaola Itsas Kultur Faktorian ostiralean egin zen erakunde ekitaldian, Albaolak esker ona adierazi zien Sakanako Mankomunitateari eta udalei. XVI. mendeko San Juan baleontzi transozeanikoaren errepika egiteko Sakanako basoetako haritzak hartu zituzten Albaolakoe 2013an. Itsasontzia azaroaren 7an ureratuko dute, uretan beste lan batzuk egiteko.



URRIAK 13 - URRIAK 17

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astelehena 13

Mikel Mazkian Olaztiko Rallyaz

Astearte 14

Etxeetako mahatsondoak

Asteazkena 15

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren jarraipena. Idoia Granizo.

Osteguna 16

Elkarrizketa

Ostirala 17

Agenda berezia

'Langileok Palestinarekin', lanuztea urriaren 15ean

LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, CGT, Etxalde eta Hiruk hiru orduko lanuzteetara deitu dute urriaren 15erako, Palestinari elkartasuna adierazteko. ELAk bere aldetik egin du deialdia. Hezkuntzan LABek, ELAk eta Steilasek egun osoko greba deitu dute

M.B.G SAKANA

Israel Palestinan egiten ari den genozidioa salatzen duen ekimenek ez dute etenik. Aurreko asteko manifestazio jendetsuen atzetik, urriaren 15erako, asteazkeneko Hego Euskal Herriko zortzi sindikatuk (LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, CGT, Etxalde eta Hiru) hiru orduko lanuzteetara deitu dituzte langileak, "Genozidioarekin negoziarik ez. Langileok Palestinarekin!" lelopean. Lanuzteak 03:00etatik 6:00etara, 11:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 22:00etara egingo dira, txanda bakoitzean. Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean 12:30ean manifestazioak deitu dira.

Eskakizunak

Aipatu sindikatuek azaldu dutenez, "Palestinako herriari langile klase osoaren elkartasuna adierazteko mobilizatuko gara; Israel Palestinako herriaren aurka, AEBetako Gobernuaren babesarekin, egiten ari den genozidioa eta gizateariaren aurkako lan krimenak salatzen; Zisjordanian Palestinako lurraldearen etengabeko kolonizazioa salatzen; Gazako genozidioaren berehalako amaiera eskatzeko eta Palestinako herriak askatasunean bizitzeko eskubidea bermatuko duen konponbide integrala exijitzeko; Patronalari eta instituzioei Israelekin harreman komertzial oro eteteko eskatzeko; eta Europar Batasuna-Israel Elkartze Hitzarmena eten dadin eskatzeko".

Hezkuntzan, egun osokoa

Urriaren 15eko lan uztea indartsuago izango da hezkuntzan, LABek, Steilasek eta ELAk Euskal Herriko hezkuntza sistema osorako egun osoko grebara deitu dutelako, haur eskoletatik hasita, unibertsitateetara bitartean. Halaber, lantokietan mobilizatzeko, pikete informatiboak egiteko eta antolatutako mani-



Palestina jasaten ari den genozidioa salatzen duen elkarretaratzea, Iruñean. ARTXIBOA

ETXARRIN ETA ALTSASUN KONTZENTRAZIOAK DAUDE 11:00ETAN, ETA 19:30EAN HERRI GUZTIAN

festazioetan parte hartzeko eskatu diete hezkuntzako langileei.

ELA, bere kabuz

ELAk bere kabuz egin du deialdia. ELAren ustez, "Euskal Herriak gaitasun aski erakutsi du bere kabuz mobilizazioak antolatzeko eta Palestinaren inguruan neurri zehatzak eta eraginkorrak eskatzeko. Urriaren 13an lanuzte orokorrak deitzea proposatu genuen, baina LABek ez du nahi izan". Horrela, urriaren 15ean lanuztea deituko du ELAk, "enpresei, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako zein Espainiako Gobernuari Israelekin harreman guztiak etetea" eskatzeko. Hala, alderdi politikoei konpromiso zuzena eskatu die: "euskal alderdiek Israelen aurkako boikotaren baldintza jarri behar dute Sanchezen Gobernuaren babesteko bozketa guztietan".

Sakanako deialdiak

Urriaren 15eko goizean kontzentrazioak egingo dira Altsasun eta Etxarri Aranatzan, 11:00etan. Arratsaldean herri guztietan kontzentrazioak deitu dituzte, 19:30ean.

Erredakzioaren oharra

Guaixe fundazioko langileek bat egingen dugu lastailaren 15erako, asteazkena, deituta dauden lanuzteekin. Horrela, Palestinako herriaren kontra Israel egiten ari den eraso basatia salatuko dugu. Genozidioa bukatu eta Palestina estatu libre izateko eskubidea defendatuko dugu.

Guaixe fundazioko langileen egitekoa informatzea denez, ezarritako ordutegietatik kanpo egingen dugu lan uztea, eta horrela protesta ekitaldien jarraipena egin ahal izaneko dugu.

Lehen oniritzia eman dio hirigintza planari

Bi hilabetez jendaurrean egonen da. Herri gunearen inguruan aurreikusi dira etxebizitzetarako lursailak. Hirigintza araudi berrian industrialdeak ere garatzeko aukera aurreikusi da

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Udalak hirigintza planari hasierako onarpena eman dio. Hari lotutako agiriak udaletxean edo *uhartearakil.eus* webgunean kontsulta daitezke. Udalak onartutako hirigintza plangintza jendaurrean azaroaren 4ra arte egonen da. Epe horretan edozein interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ditzake. Txomin Uharte Baleztena alkateak gogorarazi du aurreko hirigintza plana 1991ekoa zela eta udalak hura berritzeko bideari 2017an ekin ziola. Lehen onarpena jaso arte, administrazio tramiteaz aparte, ubertearrek planaren zirriborroren gainean iradokizunak eta proposamenak egiteko aukera izan dute.

Alkateak esan duenez, "aurreko plangintzaren eguneraketa eta berritzea egin dugu. Izan ere, aurrekoan ez ziren aipatzen gaur egun dauden materialak edo egin daitezkeen hainbat gauza". Uhartek azaldu duenez, "oro har, herri gune trinkoa sendotu egiten da, egungo eta etorkizuneko beharretara egokitutako hazkunde antolatutako eta orekatutako aurreikusten baitira, egungo herriaren egiturari jarraituta, eta iraunkortasunaren eta balabideen optimizazioaren abantaila aurkeztuz".

Moldaketak

Hirigintza planean egindako aldaketak egungo herriaren egiturak finkatu eta horren ondoan nukleoaren garapena ezartzea proposatzen du, jarraitutasun funtzionala sortuz, herrigunea modu harmonikoan eta kongruentean garatzeko, horrela herriaren egitura osatuz, ertzeko espazioak planteatutako beharren arabera betetz. Eskematikoki, herriguneko bizitegi hedapenerako hiru eremu planteatzen dira: Erresoro, Errekabitate eta Zerradoa.

Finkatutako eta finkatu gabeko hiri lurzoruen eta lurzoru



Uharte Arakilgo ikuspegia Amurgingo bidetik. ARTXIBOA

"GAURKO ETA BIHARKO PREMIETARA EGOKITUTAKO HAZKUNDEA AURREIKUSTEN DA"

urbanizagarriaren antolamendu proposamenen guztira 180 etxebizitza planteatzen dira. Tipologia nagusia familia bakarreko etxebizitza da, atxikiak edo isolatuak, landa gunean gehien eskatzen den tipologia delako, baina etxebizitza kolektiboaren tipologia ere aurreikusten da, lehendik dagoen industria lur eremu batean eta Erresoron, herrigune historikoaren hedapena delako, tipologia nagusi horrekin.

Udalak landutako hirigintza proposamenaren arabera, herriaren ekialdean, Erresoro dermionan, frontoiaren eta Errekondo kalearen artean urbanizazio berri bat egingen litzateke, San Migel kaleari paraleloa den beste kale bat sortuz. Kale horrek iparraldean Errekondo kalearekin bat egingen luke, erdialdean San Miguel kalearekin eta he-

goaldean, eskolaren ondoan, San Joan plazarekin.

Bestalde, hirigintza plan berrian bizitegirako beste lursail proposamen bat dago Larranondoa eta Iriburu kaleen eta Itsasiko erreken arteko espazioan. Baita Itsesi, Zerradoa eta Gelto-ki kaleetan ere. Azken horretan fundizioa hartu zuen eraikinari kalifikazioa aldatu diote eraikigarria izan dadin eta hark betetzen duen espazioan etxeak egingen dira etorkizunean.

Plan berriak gaur egun dauden industria eremuak eta aurretik indarrean zegoen plana garatzeko izapidetutako lurzoru urbanizagarriko sektoreak sendotzen ditu. Hala, Sargaitz industrialdearen mendebaldera hazteko aukera aurreikusi du hirigintza plan berriak, Zubiaur eta Mendikoa dermionak hartuz, autobia pareko zubiraino. Handik industrialdera daraman kalean errotanda berri bat eraikiko litzateke eta hari perpendikularra litzatekeen kale bat aterako litzateke. Ezker-eskuin, pabiloiak izanen litzateke. Bestalde, Zerradoan eta Iriburun enpresak hazteko edo kokatzeko espazioak aurreikusi ditu udalak.

0 km
SAKANAKO
GIDA

BA
DA
TOR!

PAPEREAN
ETA
ONLINE



<https://guaixe.eus/gida/>



KOLABORAZIOA


GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA

Turkiar Mekanikoa

1783ko apirilaren 17an Versaillesera iritsi zen Turkiar Mekanikoa. Europako aristokrazia liluratuta zegoen: gaur egun robota deituko genukeen makina edo automata batek xakean jokatzeko gaitasuna zuen. Engranaje, soka eta poleen bitartez, beso mekanikoa mugitzen zuen turbantedun panpinak. Maiatzean Parisen zen, eta xake jokalarari adituen aurka aritzeko. Laster jokatu zuen François-André Danican Philidorren eta Legall de Kermeurren aurka, garaiko jokalaririk onenak. Philidorrek makina garaitu zuen, baina nekeza izan zela aitortu zuen. Pentsa: Philidor, gaur egun xakean hala moduz aritzen garenok maiz egiten dugun defentsaren asmatzaileak, zailtasunak izan zituen robot baten aurka. Bere aurka jokatu ziren beranduago Benjamin Franklin Parisen, eta Napoleon Schönbrunnen. Laurogeita lau urtez aritu zen makina miragarria han hemenka, barkuan munduari bira ematen, Ameriketako Estatu Batuetan, Kuban...

harik eta Philadelphiako museo bateko sutean erre zen arte.

Bi mende baino gehiago pasata, lilura berdinarekin ari gara makinekin hizketan. Aitortzen dut, ChatGPT erabili dut azken aldian txosten neketsu batzuk idazten laguntzeko, galdetu diot Adoberen PDF laguntzaileari dokumentu luze baten laburpenari buruz, eta eskatu diot Dall-e makinari logotipo simple batzuk proposatzeko. Programa sinpleak egin dizkidate Python bidez informazioa erausteko, eta makinei galdetu diet azalpen matematiko batzuk eraikitzeko. Philidorren harridura berdinarekin begiratu dut nola eraikitzen zuten askotan zuzena zen erantzun bat, baina maiz ikusi dut erantzuna zuzena baino, zuzen antzekoa zela. Hau da, erantzun zuzenak emateko baino, zuzenak diruditen erantzunak emateko trebetasuna duten makinak dira. Ez da gauza bera, antzekoak izan arren.



Turkiar Mekanikoak trukua zuen, noski. Kutxa erditik mozten duen magoak bezala, badu leku bat bere burua ezkutatzeko. Magoak ez du bere laguntzailea erditik mozten, badakigu hori, baina hala dela irudikatzeko moduak aurkitu ditu. Turkiar Mekanikoaren barruan, ireki ahal ziren ateetatik ondo ezkutatuta, xake maisu bat eserita zegoen, eta xake maisua zen poleak mugitzen zituena. 1809ko uztailaren 5etik 6ra bitarte, Napoleonek Austria-Hungaria garaitu zuen Wagramen, baina 24 mugimendutan irabazi zion Turkiar Mekanikoaren barruan zegoen gizonak.

Eta ChatGPTk, DeepSeek, Claudek edo Elon Muskek bere X sare nazian erabiltzen duen Grokek ere trukua dute. Marketin estrategia argia da: munduko ezagutza guztia bildu dugu, eta hemen dituzu, beraz, erantzun zuzenak. Errealitateak bestelakoa da: makinek erantzun asko dituzte moztuta, manipulaturik edo bideraturik. ChatGPTk ez du Bibliaren edukiaren antzekoa den eduki umoretsurik sortuko, eta ezin du sexuari buruz hitz egin. DeepSeek

ezin du Txinako Alderdi Komunistaren parodiarik egin. Claudek literatura sortu dezake, baina ezin du biolentzia eszenarik sortu. Dall-ek uko egingo dio hitz zerrenda mordo bat prozesatzeari, maiz komikoa izan arte. Eta Grokek maiz jasotzen ditu bere jabe Musken errietak, ezkerrekoegia omen delako “neutrala” izateko. Noski, Muskentzat neutrala da berak dioena.

Automata turkiarrean bezala, makina ez da robot autonomo bat, enpresa, interes politiko eta ikuspegi batzuk daude atzean. Horrela uler daiteke Musken kasuan Wikipediari egiten dion kritika eta orain aste bat iragarri zuena: Grokipedia sortuko zuela. Ez dakigu egingo duen, maiz horrelakoak botatzen dituelako atentzio bila (Martera bidean egon beharko ginatke bere plangintzaren arabera, eta burutik burura telepatikoki hitz egiten txipei esker 2025 amaitu aurretik). Baina ideiarene atzea horixe dago: automata baten itxura izango duen makina, atzean pertsona baten ideologia sekretuan gordeta.

Albaniako gobernuak Diella sortu du, ministerio bat kudeatzen duen lehen adimen artifiziala. Ustelkeriari aurre egitea omen da helburua: makinek ez dituzte lagunak hobetsiko eta, beraz, erosketak beti izango dira justuagoak, garbiagoak, gardenagoak. Teknokraten ametsa da Diella, eta susmoa dut laster hasiko direla hemen kriptobroak horrelakoak saltzen saiatzen. Politikarik gabeko mundu bat, jenderik gabeko erabaki automatizatuekin.

Baina automataren barruan pertsona bat zegoen bezala, gainontzeko AA tresnetan dagoen bezala, Diellaren atzean ere datu multzo bat dago, agindu sorta bat, makinaren hariak mugitzen dituen enpresa edo pertsona bat. Grokek Musken ideologia erreplikatzeko du, eta ez badu egiten, birprogramatuko dute, harik eta eta jabea gustura egon arte. Diellak zer erosiko duen eta zer ez algoritmo ilun batek erabakiko du, norbaitek programatu eta bideratu duena. Bi mende igaro dira, baina trukua oraindik leku berean dago.

DUELA 25 URTE...



Altsasuko etxegabeen aterpea

Kaputxinoen egoitzan egokitutako etxegabeen aterpeak duela 11 urte zituen atek zabalik. Gorka Unamunok, Felix Benjumeak eta Eduardo Galanek, 23 eta 24 urte arteko gazteak, aterpea agorritik geroztik kudeatzen ari ziren. Eta bitartean ikasketekin jarraitzen zuten. Pasan ziren eta etxerik ez zuen jendeari afaria, lotarako lekua eta gosaria eskaintzen zieten, baita trenez doan bidaiatzeko txartela ere. Aterpea erabiltzen zutenen %97 gizonezkoak ziren.

KLIKQ

Prestakuntza erraza,
doakoa eta zure neurrira

Ezagutu ikastaro guztiak hemen:

kliko.navarra.es



Teknologia zure erritmoan



Sar zaitez **kliko.navarra.es** webgunean edo deitu **012** telefonora eta jaso ezazu digitalizazio-ikastaroei buruzko orientazio pertsonalizatua, bai herritarrentzat, bai kolektibo eta erakundeentzat.



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno
de Navarra
Nafarroako
Gobernua



Hasi dira araztegietan eguzki plakak jartzen

Nilsako arduradunek "klima aldaketaren kontrako borrokan eta jasangarritasunaren aldeko pausoak" eman nahi dituzte. Horregatik Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Urdiaingo ur araztegietan eguzki plakak jartzeko plangintza du

SAKANA

Ur araztegiez arduratzen den Nilsa enpresa publikoak araztegietan argindarra sortzeko eguzki plakak jartzeko plana indarrean du. Plan horren helburua energia garbiak sustatzea eta faktura elektrikoaren kostua jaitea da. Izan ere, ur beltzen arazketa jarduera elektro-intentsiboa da Nafarroan, eta 1,518 milioi euroko kostua izan zuen 2024an. Gainera, Europar Batasunak aginduta, karbono neutraltasunaren erronkari aurre egin beharra du Nafarroako Gobernuak. Azaroan onartutako zuzentarauak aldi baterako mugargri progresiboak ezartzen ditu, helburua jarritz 2040an araztegi handiak iturri berriztagarriez soilik elikatzea lortzeko.

Plana gauzatzeko Nilsak hiru faktore hartzen ditu kontuan: araztegi bakoitzak duen elektrizitate kontsumoa, gune bakoitzean plaka fotovoltaiakoak jartzeko dagoen espazioa eta leku bakoitzaren klimatologia. Jartzen ari diren instalazioak fotovoltaiakoak ahalik eta elektrizitate gehien ekoizten dute, instalazioak eskatzen duen energia hornitze-ko eta, gainera, soberako energia sare elektrikorara isurtzeko, araztegi bakoitzaren potentziala maximizatuz.



Enpresa publikoak Urdiainen jarritako eguzki plakak. NILSA

Dagoeneko hamalau araztegitan jarri dituzte eguzki plakak. Sakanako aurrena Urdiaingo araztegitan, Urdiaingo eta Altsasuko ur beltzak garbitzen dituen azpiegituran. Lanak garagarrian despiditu zituzten

Nilsako arduradunek jakinarazi dutenez, autokontsumorako eguzki plakak hartuko dituzten hurrengo araztegiak Irurtzungoa eta Etxarri Aranatzkoa dira. Bien lanak emateko deialdia eginga du eta bi herri horietako araztegitan instalazio fotovoltaiakoak 2026an indarrean izanen dira. Lanak ilbeltzean

hastea aurreikusten da, eta lau hilabete iraunen dute. Irurtzungoak 27.217,85 euroko inbertsioa eskatzen du. Etxarri Aranatzkoa, berriz, 49.022,85 eurokoa. Nilsako arduradunek jakinarazi dutenez, administrazio tramiteak egiten ari dira Lakuntzako araztegitan ere eguzki plakak jartzeko. Azpiegitura horretan Lakuntzako eta Arbizuko ur beltzak arazten dira. Plana gauzatzeko Nilsak Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren %40ko dirulaguntza du.

Sakanako beste hamar herrietan daude urak arazteko azpiegiturak:

Araztegien inguruan

Urdiaingo-Altsasu

- **Potentzia:** 50 kWp.
- **Aurreikusitako energia ekoizpena:** 63.248 kWh.
- **Kontsumitutako energia, urtean:** 210.793 kWh.
- **Kostua:** 111.724 euro.

Irurtzun (bidean)

- **Potentzia:** 11 kWp.
- **Aurreikusitako energia ekoizpena:** 15.387 kWh.
- **Kontsumitutako energia, urtean:** 176.229 kWh.
- **Kostua:** 28.941 euro.

Etxarri (bidean)

- **Potentzia:** 22 kWp.
- **Aurreikusitako energia ekoizpena:** 29.375 kWh.
- **Kontsumitutako energia, urtean:** 73.087 kWh.
- **Kostua:** 37.503 euro.

Lakuntza (tramitazioan)

- **Potentzia:** 25 kWp.
- **Aurreikusitako energia ekoizpena:** 31.624 kWh.
- **Kontsumitutako energia, urtean:** 88.184 kWh.
- **Kostua:** 43.619 euro.

Zuhatzu, Ithabar, Irañeta, Uharteko Arakil, Unanu, Dorrao, Lizarraga, Bakaiku, Olatzagutia eta Ziordian.

San Martin kaleko zati batean trafikoko ordenazio berria

Irurtzunen bizi eta mugikortasun planaren barruan, udalak San Martin kaleko 25 eta 27 zenbakien parean trafikoko ordenazio berria ezarri du. Has-teko bi atari parera ibilgailuak sartzeko norabidea aldatu du udalak, Iratxo elkartearen ondortik, Aldapa kaletik sartu behar-ko dute. Horrekin batera, ibilgailuak baterian aparkatzeko tokiak zehaztu ditu, plaza gehiagor sortuz eta ordenatuta utziz. Azkenik, mugikortasun arazoa dutenen pertsonendako aparkalekua markatu du.

Mugikortasun planaren barruan udalak Elizpea eta Berria kaleetan antzeko ordenamendua egin zuen aurretik.

Beheko bentako bidegurutzeko lana errematatu zain

Altsasuko Beheko bentako bidegurutzean ur ihesa izan zen irail-leko azken asteburuan. Udalak berehala bidali zituen langileak, eta pala baten laguntzaz, ur ihesa konpondu zuten. Ur biltegitik herrira arteko sarea berritu ondoren uraren presioa nabarmen handitu da. Udalaren susmoa da horren ondorioz zaharkituta dagoen hodi horretan ihesa sortzea. Udalak ez du zolatzetan lanik egin haustura izan den tokia gobernuaren errepidea delako. Udalak jakinarazi du Iruñea eta Gasteiz etorbideak hurrengo hilabetean asfaltatzeko dituela gobernuak eta, konponketa lanak egin diren zatia asfaltatzeko eskatu diote gobernuari.

Konponketen ondoren, Unanurako zubia zabalik

Zubiaren bi harrizko estribu indartu dituzte, ezpondako ura bideratu eta ugalde ibilguan porlana zabaltzeko

UNANU

Irailleko azken aurreko astebururako erabilgarri zegoen, atzera ere, NA-120 errepidetik Unanura zuzen igotzen den dermio-ko bidea, errotakoa. Otsailaz geroztik ibilgailuen trafikora

itxita zegoen bidea, Leziza ugalde gaineko zubia egoera txarrean zegoelako. Ugaldearen emariaren indarrak zubiaren ipar-ekialdeko harrizko estribua hondatu eta zati bat erorarazi zuen. Behin betiko konponbidea

eman bitartean, ura bideratzeko, eta estribua gehiago ez kaltetzeko, legarra pilatu zuten.

Iraillean, batetik, harrizko estribua porlanez ongi hartu zuten. Bestetik, dermio-ko bideko ezpondaren akaberan porlana zabaltzeko, euri ura behar bezala bideratzeko. Horretaz aparte, zubiaren azpian porlan plan-txa jarri zuten. Azkenik, hego-ekialdeko harrizko estribua babesteko porlanezko bi bloke handi jarri dituzte haren oinarrian.



Ezkerretako harrizko estribua konpondu eta zubi azpian porlana jarri dute.

FESTAK

ARBIZU

XV. TXISTOR EGUNA

URRIAK 12 igandea

Goiz osoan zehar, ardoa eta pintxoak plazan; txerriaren produktuen erakusketak; arbizuko argazki zaharren erakusketa.

10:00 Diana Arbizuko fanfarrearekin.

10:30 Azokaren irekiera.

11:00 Nafarroako Trikitilarien bilkura.

11:30 Pintxo lehiaketaren hasiera.

Arbizuko Erraldoiak Haizeberri Dultzaineroak taldeak lagunduta.

12:30 Haizeberri Dultzaineroak herriak zehar.

15:00 Azokaren itxiera.

17:15 Nafarroako Trikitixa Eskolen VIII. Jaialdia.

19:00 Xaibor disko festa.

20:00 Aatea.



2024ko Arbizuko txistor eguna.

"Ikasleari bulkada izugarria ematen diozu"

PATXI AGIRRE ARRATIBEL TRIKITILARI BILKURA ETA JAIALDIAREN ANTOLATZAILE Trikitixa eta pandero doinuek osatuko dute, atzera ere, Txistor Eguneako soinu banda. Goiz eta arratsaldean entzuteko aukera izanen da

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Txistorraren Egunak doinurik badu, hori trikitixa eta panderoarena da, Arbizuk Nafarroako Trikitilarien Bilkura hartuko baitu.

Noiztik daude lotuta txistorra eta trikitixa?

Trikitixa jatorduen inguruan mugitu izan ohi da; bazkalostean, afalostean. Kasu honetan hamaitakak antolatzen dutenez, horren ondoren moldatutako zerbaitea gurea.

Nolaz sortu zen lotura hori?

Bertako jendea hasi ginen, goizean bildu eta herri guztian barna kalejira egiten genuen. Duela 8 edo 9 urte Txistor Eguneako arratsaldea hanka motz gelditzen zela ikusten zen. Eta bertako eskolako ikasleekin jaialdi antzeko bat antolatzen hasi ginen. Poliki ateratu zen. Joleak eta jendea gustura gelditu ziren. Eta orduan pentsatu genuen Nafarroako eskolen jaialdi bat antola genezakeela. Eta horrela hasi ginen, eta hala segitzen dugu.

Kalejiran zaudetela, jendeak dantzatu edo kantatzen du?

Ez, kale guztiak jendez beteta baitaude. Beraz, gora eta behera ibiltzen gara kale Nagusian. 11:00ak aldera elkartzen gara, eta buelta. Beharbada 70 trikitilari eta pandero jole gara, Liza-



Patxi Agirre Arratibel festaren erdigunea izanen den plazan.

"POZIK HANDIENA DA GAZTETXOEK ETA HELDUEK JOTZEN DUTELA, JUBILATUEK ETA GUZTI"

rralde, Lekunberri, Lesaka, Iruñeko Alde Zaharra, Barañain, Zizur Nagusia, Txantrea, Bakai-ku, Iturmendi, Altsasu eta Arbizukoak. 12:30 aldera gosaria ematen digute behean. Bazkal garairako askok alde egiten dute.

Badu hausporik trikitixak Nafarroan?

Bai, badu. Baina horrela segituz, beti zerbait antolatzen eta bulkatzen, bide hori segituz.

Sakanan trikitixak osasuna du?

Bai. Pozik handiena da gaxttxoek eta helduek jotzen dutela, jubilatuek eta guzti. Eta helduek pila eskertzen dute.

Non ikasten dute?

Musika eskolatan, bai edo bai, solfeoarekin jotzen ikasi behar duzu. Aparte ematen ditugun eskolak solfeorik gabekoak dira. Horietan trikitixa jotzeko bi modu daude: zenbakiekin edo aurrez

aurre jarri eta joz. Jende gehiena solfeorik gabe ikasten du.

Ikasi eta kalerako pausoa.

Gure nahia ez da jendea 30 pieza ikasi arte kaiolan sartuta ikasten edukitzea. Bizpahiru pieza ikasi eta gurekin etortzen dira. Pieza horiek jotzea tokatzen denean joko dute. Ikasleari bulkada izugarria ematen diozu horrela. Motibatze modu berezia da.

Zer sentitzen duzue jendea inguruan dantzatu edo kantan aritzean?

Izugarritzko gorakada izaten da. Trikitixa jaialdia antolatzen dugu (aurten Lesakan) eta ondorengo afaria izaten da... Soinua jo eta kantaz goizeko laurak, bostak edo seiak arte.

Eta arratsaldean?

Nafarroako Trikitixa Eskolen VIII. Jaialdia. Tuter, Lizaraldea, Lekunberri, Lesaka, Iruñerriko hainbat eskolakoak... Bakoitzak eszenatokian bizpahiru pieza joko dituzte, haurrak, gazteak edo helduak. Bi ordu inguruko saioa izanen da. Oso ongi jotzen duen jendea etortzen da. Plazan izanen da, 17:00etan.

Ikasturte hasiera izanda, behatzak arin edo motel dabilzkie?

Oporren aurretik egiteko lan batzuk jartzen dizkiegu. Eta oporretan lan egin badute, gero nabari da.

Halako jaialdi gehiago izaten dira?

Bai. Etxalarren eta Lesakan. Elizondokoan bakarrik bertako eskolakoak aritzen dira.

Etzikoa antolatzen zenbat zaudete?

Ez dago halako lanik. Aurretik eskolei jakinarazten diegu. Bizpahiruren artean egiten dugu dena. Gure egitekoa herria alaitzea da, eta ikasleak jendaurrera ateratu. Gu ere jo eta jo ibiltzen gara, gauera arte. Zera guztiak jaso eta gero gure kontu ibiltzen gara tabernatik tabernara. Haik eta esaten diguten: nahikoa da.



www.embutidosarbizu.es

948 460 628 - Utzubar industrialdea, E. kalea 1-2 - Arbizu



Erreserbak: 635 093 140



Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499

Nafarroako berezko txistorra

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

ALTSASU Tailerra.

Sarean Euskaraz: 3D Inprimagailuak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean. (BERTAN BEHERA)

LAKUNTZA Ipuin kontaketa.

Askatasun doinuak eta Hartz nagia
ipuien kontakizuna eginen du Mitxel
Elortza egileak.
18:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Kontzertua.

Euskal Herriko Txistulari Elkartearen
TX 8.0 kontzertua, Cultur Izan
Tradiziozko arte adierazpenen
egitarauaren barruan. Sarrera: doan,

aldez aurretik gonbidapena hartu
behar da.

19:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 11

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen
talde mistoaren irteera: Larreagoiko,
51 kilometro.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Zumbathon solidarioa.

Bularreko minbiziaren aurkako
lehenengo Zumbathon-a. Emanaldia,
zozketak eta abar. Saray Bularreko
Minbiziaren Nafarroako Elkarteak
antolatuta. Sarrera: ikusleendako doan.
17:30ean, Zelandi kiroldegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Proposamenak.

18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

ALTSASU Antzerkia.

El Brujoren El Viaje del Monstruo
Fiero antzezlanaren emanaldia: El
Brujo bidaia ahaztezin baterako itzulia
da. Rafael Alvarez taula gainean
egonen da, Javier Alejano zuzeneko
musikari lagun duela. Sarrerak: 12
euro (azkenak).

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzertua.

Españolismoari sua kontzertuak:
Orreaga 778, Aresi eta Exili. Sarrera:
5 euro.

22:00etan, gaztetxean.

BAKAIKU Eguna.

VIII. Katxarro Eguna. 10 urteurrena.
Bakarrekoetxea Elkarteak antolatuta.
Motoen zozketa eginen da.

10:00 Klasikoan Topaketa.

11:30 Parte hartzaileendako
aUZATEA.

12:00 Sakanatik ibilbidea.

14:30 Bazkaria, elkartean.

URDIAIN Omenaldia.

Benigno Mendia Hamarretik hamar!
hamargarren urteurrenaren omenaldi
egitaraua.

Plazan (eguraldi txarrekin,
20:00etatik aurrerako ekimenak
frontoian)

ZINEMA

ALTSASU

10RTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El cautivo

Igandea 12 19:30
Astelarena 13 19:00

Heidi (euskaraz)

Igandea 12 17:00

Romeria

Osteguna 16 19:00

12:00 Etxajua, ongi etorria eta
aureskua, auzatea eta
txaranga.

15:00 Bazkaria eta kantaita.

20:00 Musika: Arrixku taldearen
kontzertua.

21:00 Bokatada.

21:30 Bideo emanaldia.

22:30 Musika: Kitziki taldearen
kontzertua.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Olaiaaren lorategia antzezlanaren
emanaldia.

17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera:
Belate – Beruete.

07:00etan, Matxainen.

ITXASPERRI

17:30 Arakilgo landa ondarea Agustin
Cuevas liburuaren aurkezpena,
Jimeno Jurio dirulaguntza
bitartez lagundutako lana.

19:00 Garesko Emilia Arrieta
abesbatzaren emanaldia,
Gogo betez kantu
programaren barruan.

IGANDEA 12

IRAÑETA Mendi martxa.

Euskal Herriko Erdigunera mendi
martxa, Nafarroako Mendi
Federazioak, Gure Eskuk eta
Sakanako mendi klubek antolatuta,
Irañetako Udalaren laguntzarekin.
09:30 Irteera, Irañetako bordatik.
11:30 Ekitaldia eta pintxopotea.
14:00 Bertsolariak: Idoia Granizo
eta Saats Karasatorre.
14:30 Bazkaria, Irañetako bordan:
Bertako baba txikiak (izena
ematea: 620 190 277).

ETXARRI Aranatz Erakusketa.

Ziza eta Landaren Erakusketa.
Omenaldia: Domingo Garciandia,
Fernando Goya, Bixente Garziandia 'Barze'

eta Jose Luis Esevenri. Pintxo dastaketa:
Derry, Lekuona eta Xapatero. Antolatzaileak:
Arzabal elkarte eta Mikologi eta Landaren
Taldea. Laguntzaileak: Larrañeta Elkarte
Mendi Taldea, Etxarri Aranazko Udala,
Goierriko Zurak eta Insalus.

10:00etatik aurrera, plazan.

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Ez gara azkenak izango Adriana
Olmedo konpainiaren magia eta musika
familiarreko ikuskizuna: erresistentzia eta
gainditze abentura handia kontatzen du.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Zirku ikuskizuna.

Airea familiarreko zirku ikuskizuna.
Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.
18:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 14

URDIAIN Tailerra.

'Zaindu dezagun Urdiain. Haurren herria
denon eskola. Urdiaingo herri eskolako
zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko
komunitate hausnarketa': Txikiendako
tailerrak (6-11 urte).
16:30ean, auzoan.

ASTEAZKENA 15

SAKANA STOP Genozidio!.

Langileak Palestinarekin mobilizazio eguna.

OSTIRALA 17

LAKUNTZA Bisita gidatua.

Andoni Egurza Irisarriren erakusketatik
bisita gidatua: Urteetan ikasitako
tekniken inguruko grabatuak.
18:00etan, Sorginak tabernan.

**LAKUNTZA Hegoak Hegan Bubisher 15 urtez erakusketa:**

Bubisher Aljeriako Tindufeko errefuxiatu saharararren kanpamentuetako
liburutegi eta bibliobus sarea, Sahararen aldeko liburuak.

Urriaren 24ra arte. 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.


LAKUNTZA Andoni Egurza Irisarri:

Urteetan ikasitako tekniken inguruko grabatuak.

Asteazkenetik igandera. Sorginak tabernan.

Er[✓]iti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

OROIGARRIA



Benigno Mendia Goikoetxea

X.urteurrena
(Urriaren 10ean)



Beti gure bihotzetan
Ez gara zutaz ahazten
Atzo izango balitz bezala

Familia
Urdiain

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 10



Min. 9º
Max. 18º

Larunbata, 11



Min. 9º
Max. 23º

igandea, 12



Min. 11º
Max. 23º

Astelehena, 13



Min. 10º
Max. 21º



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

Arbizu kiroldegiko tabernaren enkan-tea Azaroaren 3an (Hilean 250 euro / euskaraz jakitea) 948 46 00 17 / info@arbizu.eus/+ info Arbizuko udaletxean

IKASTAROA

Olatzagutiako udalak pintura ikastaroa antolatu du: Izen ematea hilaren 16an amaitzen da. Informazio gehiago udaletxean, 9:00etaik 14:00etarakafe konpon-du tailerrean izen ematea zabalik dago: Etxetresna elektrikoak eta beste konpontzen ikasiko duzu. Informazio gehiago eta izen ematea Altsasuko Udaletxean

OHARRA

Etxarrenen ospatuko den landa eremuko emakumearen egune-ko bazkarirako txartelak: salgai urriaren 14ra arte. Informazio gehiago Arakilgo Udaletxean

LAB sindikatua Kubarako osasun materiala biltzen ari da: Altsasuko egoitzan (San Joan 52) urriaren 15era arte jasoko du; xiringak, eskularruak, higie-ne produktua...Likidoak ezin edozein sendagai mota (iraungipen data 2026koa baldin badute) Langileon elkartasunez,

blokeoa hautsi! Elkarta-sun kanpainaren barruan

Bularreko minbiziaren aurkako 1.Zumbathoian izen ematea zabalik: Altsun egingo da urriaren 11n, Saray elkarteak antolatu-ta.

Arbizuko Txistor Egu-nean lanean ibiltzeko boluntario bila: Baka-rren bat laguntzera animatzen bada udale-txean eman dezake izena.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Eus-kara Zerbitzuak euskal-duntzen edo alfabetatzen ari diren sakanda-rrei zuzenduta. Informa-zio gehiago www.saka-na-mank.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.k.eus

Lure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak



IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Sakanako futbol taldeak, txanponaren bi aldeak

FUTBOLA Altsasu eta Lagun Artea lider jarri dira. Etxarrik eta Altsasu neskek galdu egin zuten

Emakumezkoen hirugarren mailan Altsasuk 0-1 galdu zuen Obearenaren kontra, etxean. Bederatzigarren da, puntu batekin. Igandean, 16:00etan, Berriozar du aurkari, Berriozarren.

Gizonen preferente mailan Altsasu lider jarri da Dantzalekun Ziraukiri 5-0 irabazi eta gero. Igandean, 18:00etan, Beti Casdano hartuko du, Dantzalekun.

Erregional mailan, Lagun Arteak Beti Kozkorren kontra hiruna berdindu zuen, luzapenean. Berdinketa horri esker erregional mailako lider berria da Lakuntzako taldea (7 puntu), Kirol Sportekin puntutara berdinduta. Etxarri Aranatzek, aldz, 3-1 galdu zuen Kirol Sporten kontra eta laugarren da (6 puntu). Lagun Arteak Kirol Sport hartuko du larunbatean, 16:00etan, Zelai Berrin, lidergoa erabakiko den partidari. Etxarrik Baztan B izango du aurkari larunbatean San Donato zelaian, 16:30ean.

ARETO FUTBOLA Derbiak, gol festak, galerak... denetatik

Hirugarren mailan, Aralar Mendik 3-6 galdu zuen Ribera Navararren kontra. Gaur, ostirala, Altsasuk Ribera Navarra du aurkari, 20:30ean, Tuteran. Aralar Mendik Kirol Sporten kontra jokatu du larunbatean, 17:45ean, Orkoien. Lehen maila autonomikoko derbian Xotari 2-3 gailendu zitzaion Arbizu, eta Altsasuk 5-3 galdu zuen Universidad de Navarrarekin Atzo Altsasu eta Xotaren derbia jokatu zen; Arbizuk Mendialdea hartuko du gaur 19:30ean. Emakumeen lehen autonomikoan Xota A-k 14-0 irabazi zion San Migueli. Larunbatean, 12:00etan, Mendialdea du aurkari Berriozarren. Xota B-k Orvina du aurkari gaur, 20:15ean, Ezkaban.



Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia aurkeztearekin batera, Erdigunera joan ahal izateko Irañetan jarri duten panela aurkeztu zuten.

Euskal Herriko Erdigunera, ongi seinaleztatuta

MENDIA Zortzi eragilek antolatuta, Euskal herriko Erdigunera Ibilaldia egingo da igandean, lurraldetasuna aldarrikatzeko. Bost udal eta kontzejuk Erdigunera nola iritsi jasotzen duten panelak egin dituzte, eta lehena Irañetan jarri dute. Giro ederra espero da

Maider Betelu Ganboa IRAÑETA

Urriak 12, Hispanitatearen Eguna, "guretako horren arrotza den eguna. Horregatik, guk Euskal Herri osoa nabarmendu nahi dugu egun horretan, zazpiak bat garela, hemen herri bat dagoela, Euskal Herria, estaturik ez duen nazioa, bere hizkuntza duena, euskara, eta kirolari begira gure selekzioak aldarrikatu nahi dituen. Hori guztia aldarrikatuko dugu urriaren 12an Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldian" nabarmendu zuen Iratxo elkarteko Mikel Goldarazena eguna aurkezteko urriaren 6an Irañetan egin zen prentsaurrekoan.

Erdigunea, Beriainen

Felix Isasa ingeniariak, barizentzaren kontzeptuan oinarrituta, Euskal Herriko erdigunea Andiaiko Mendilerroan dagoela zehaztu zuen, Beriaingo San Donato baselizatik gertu, Olibesarioko Saroian (1.236 m). 2004. urtean monolito txikia kokatu zen bertan. Iratxo elkartek an-

tolatutako Sakanako Ibilaldia bertatik pasatzen da, eta denborarekin lurraldetasuna aldarrikatzeko Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia martxa antolatzen hasi ziren. Ekimenara Sakanako Mendizaleak taldea batu zen, eta haiekin batera Altsasuko Mendigoizaleak, Atarratzeko mendi taldea, Gure Esku, Gu ere Bai!, Euskal Herriko Mendi Biltzarra eta Irañetako Udala dira igandeko martxa antolatu dutenak.

Ibilaldiak urte asko daramatza, "baina Erdiguneko ekitaldiaren ondotik bazkaria eta festa antolatzen ditugula 10-11 urte izango dira" zehaztu zuen antolakuntzako Floren Berazak. Hasieran Irurtzunen egiten zen bazkaria, baina berehala Irañetako Basakoetxea bordan egitea erabaki zuten, Irañetatik abiatuta erdiguneranzko ibilbidean dagoelako. Urtetik urtera, harrera hobe du egunak. "Joan zen urtean ekitaldian 200 pertsona inguru bildu ziren, eta bazkarian 80 pertsona inguru. 10 kilo babatziki

prestatu genituen" gogoan du. Babatzikiak dira eguneko plater izarra, saiheskiekin eta bestelako sakramentuekin, baina beste zerbait prestatzen da beti.

Ibilaldia eta aldarrikapena

Igandean bi adar aterako dira Erdigunerantz. Senosiaingo askatik, bata (8:45), eta Irañetako bordatik, bestea, 9:30ean. Erdigunera iritsita, ekitaldia izango da bertan, 11:30ean. Iazko ekitaldian Nafarroako Mendi Federazioi lehendakari Miren Eizmendik azaldu zuenez, "bi federazioen arteko sintonia erabatekoa da", eta horren isla, Nafarroako Mendi Federazioak eta Euskal Mendi Federazioak elkarlanean sortutako Euskal He-

"EUSKAL HERRI OSOA NABARMENDU NAHI DUGU IGANDEAN, ZAZPIAK BAT GARELA"
MIKEL GOLDARAZENA

rriko Mendi Biltzarra (EHMEBI) aurkeztu, eta hura babestera deitu zituen bildutakoak. Jakina, igandeko ekitaldian lurraldetasunari, Euskal Selekzioei eta bestelako ekimeni ahotsa eman go zaie berriz.

Ondoren bildutakoak Irañetako bordara jaitsiko dira, pintxopotera. Bertan Idoia Granizo eta Sahats Karasatorre bertsolariak entzuteko aukera izango dute, 14:00etan, "eguna eta pintxopotea girotzeko". Ondoren bazkariaren txanda izango da.

EHMEBI, martxan

Irañetan EHMEBIko Iratxe Osorok hartu zuen hitza. "Iaz, Federacion Vasco Navarra de Alpinismo (FVNA) sortu zela mendeurrena ospatzen ari ginela, bi federazioek sortutako Euskal Herriko Mendi Biltzarra erregistratu genuen, urriaren 1ean. Amankomunean zenbait ekitaldi antolatzen ditugu. Tartean daude igandeko Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia, abenduko Aralarko Mendigoizale Eguna eta bestelakoak". Biltzarraren "garrantzia" nabarmendu zuen. "Kirol Lege berrian, lurralde federazioei autonomia erkidegoz gaindiko elkarteak, hitzarmenak eta lehiaketak egiteko eskubidea aitortzen zaie, eta nazioarteko lehiaketetan parte hartu ahal izango duten Autonomia Erkidegoko selekzioak onartzen dira ere bai. Beraz, gure elkarteak zentzu gehiago du oraindik".

Erdigunerantz zazpi panel

Erdigunera nola iritsi erakusteko, zazpi panel jarriko dira. Lehena Irañetan jarri dute. Ibilbidearen xehetasunak eta track-a kontsulta daiteke. "Ihabar, Irañeta, Unanu, Uharte Arakil, Ollio eta Senosiain, bost toki horietatik nola heldu jaso dugu" azaldu zuen Irañetako alkate Iñaki Arangoa Ziak, aipatu herrien izenean. "Nafarroako Gobernuari bidea seinaleztatzeko dirulaguntza eskatu genion, baina ezezkia jaso genuen, parke babestua delako". Tracka paneletik deskargatu daiteke.



Emakumeen lehen senior maila. CBASK

SASKIBALOIA CBASK-eko taldeek denboraldiari ekin diote

Altsasuko CBASK saskibaloi klubeko talde nagusiek ezin hobe hasi dute denboraldia. Mutilen bigarren mailan CBASK-ek 69-79 irabazi zion Gazte Berriak-i. Gaur, ostirala, 20:00etan, Aranguren Mutilbasket hartuko dute, Zelandin. Emakumeen lehen senior mailan Navasket 48-58 hartu zuen mendean CBASK-ek. Larunbatean, 16:00etan, Navarro Villoslada A hartuko dute Altsasun



Bakaikoa, pozarren. JAVI COLMENERO

PILOTA Ezkurdia eta Bakaikoa, final laurdenetara sendo

Ezkurdiak eta Bakaikoak lau eta erdiko espezialista handiak dira erakutsi zuen, final zortzi- renetan Elordi eta Artola bidean utzi eta gero. Biek kaiolako hiruna txapela dituzte, eta 2025eko txapelarako hautagaitza erakutsi dute. Final laurdenetako lehen jardunaldian, Ezkurdiak gaur Larrazabal du arerio Azkoitian, eta Bakaikoa igandean Zabala- ren kontra ariko da Lekunberrin.

Garin eta Etxegarai, mende erdiko izenak

MENDI LASTERKETAK Etxarri Aranazko ferietako 50. Mendira Joan Etorrian 128 korrikalarik hartu zuten parte, gehienak sakandarrak, bereziki etxarriarrak. Ez zen errekorrik apurtu. Aritz Munarriz eta Eneritz Karasatorre izan ziren lehen sakandarrak

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udaberri el- karteak antolatutako Mendira Joan Etorriak data berezia bete zuen igandean: mende erdia, 50 urte. Urteurren seinalatu hone- tan 128 korrikalarik hartu zuten irteera. Lasterketa abiatu baino lehen, ordea, omenaldietarako tarte- a izan zen. Lasterketa abia- tzeko zinta Miguel Ulaiarrek moztu zuen, urte hauetan guz- tietan Udaberrin antolakuntzan aritu diren boluntarioen orde- z- kari gisa. Halaber, aurrekua dant- zatu zen, Ulaiarrez gain, Nafarroako Mendi Federazio- ko presidente Miren Eizmendi, Etx- arri Aranazko alkate Maria Saez de Albeniz, Jon Orella eta Maia- len Larraza bertan ziren, azken hauek lasterketaren etorkizuna islatzen zutela.

10 km esplosibo

Ferietan murgilduta zegoen pla- zatik abiatuta, Etxarriko portu- tik mendi puntara igotzea eta handik jaistea zegoen jokoan (10 km, 570 m +). Lasterketa motza da, baino esplosiboa. Hori zioten, bederen, korrikalari- ek. Proba hasi zenerako ateri zegoen, bai- na hezetasuna eta hotza izan ziren nagusi.

Eneko Garin billabonarra (46:51) izan zen txapelduna, Ibai Primi- cia antsoaindarraren aurretik (47:39). Hirugarren Aritz Muna- rriz etxarriarra izan zen (47:53). Munarriz bigarren igo zen men- dira, hasieratik aurrean kokatu zen Garinen atzetik, baina jais- terakoan Primiciak gaingitu zuen. Lehen beteranoa Mikel Beunza izan zen, helmugan lau- garren (48:28).

Garin abizena aski ezaguna da Etxarrin. Hain zuzen ere, Eneko Garinen osaba Peiok 1985ean 43:02 denboran ezarri zuen Joan Etorriaren errekorra, sei urte beranduago haren anaia Juan Marik 42:50-ean gaingitu zuena, ordutik gaingitu ez den marka.



Korrikalari gehienak sakandarrak ziren, etxarriarrak bereziki.



50. Mendira Joan Etorriaren podiuma.

"Osabengatik ezagutzen nuen lasterketa. Asfaltokoa naizenez, halako batekin hasi nahi nuen mendian, proba motz eta esplo- sibo batekin". Bere lehen saia- kera ezin hobe atera zitzaion.

Emakumezkoetan, Ainhoa Etxegarai beratarra (57:22) gai- lendu zen bere lehen parte har- tzean, Eneritz Karasatorre etxa- rriarraren (59:06) aurretik. Ez zuen errekorra apurtu (Maria Ordoñez, 51:28, 2022). Maite Be- regaña uharte arakildarra izan zen hirugarren, eta lehen bete- ranoa (1:00:10).

Zubirin azkarrenak

Guztira 868 korrikalarik osatu zuten XVIII. Orreaga- Zubiri maratoi erdia. Irabazleak Raul Amatriain (1:19:53) eta Nerea Murua (1:28:00) izan ziren. Sergio Garcia de Ulate 11. izan zen (1:25:33) eta Maalen Beraza 16. (1:47:20), lehen sakandarrak.

SAKANDARRAK

10 KM, 570 M+		
GIZONAK		
1.	Eneko Garin	46:51
3.	Aritz Munarriz	47:53
5.	Jon Gil	48:46
6.	Adrian Martinez	49:11
10.	Ander Iraizoz	50:30
12.	Iraitz Goñi	50:57
14.	David Caballe	51:09
15.	Iñaki Garmendia	51:31
16.	Alberto Martinez	51:36
17.	Andoni Goikoetxea	51:40
19.	Ander Galarza	52:26
21.	Joseba Galarza	52:53
23.	Jon Mendia	53:24
25.	Joxeja Maiza	53:36
26.	Ander Unzurrunzaga G.	53:42
32.	Aimar Araña	55:27
34.	Alber Razkin	55:30
35.	Ander Unzurrunzaga I.	56:16
36.	Mikel Perez Eulate	56:19
37.	Adrian Claver	56:44
38.	Julen Fuentes	57:04
39.	Kimetz Garde	57:20
42.	Ioseba Iza	58:04
44.	Carlos Mañeru	58:43
45.	Iker Eraso	58:44
48.	Jon Orella	59:02
50.	Joanes Mikeo	1:00:01
52.	Jon Unai Gonzalez	1:00:20
54.	Mikel Galarza	1:00:48
57.	Ivan L. De Sabando	1:01:08
58.	Bernardo Garziandia	1:01:26
59.	Unai Satrustegi	1:01:26
61.	Josu Gilen Hualde	1:01:38
63.	Egoitz Aldaz	1:01:53
64.	Jon Igoa	1:02:35
65.	Fran Araña	1:02:43
67.	Julen Luis	1:02:51
69.	Marcos Jose Rocha	1:03:06
70.	Ibon Ubeda	1:03:07
71.	Oihan Artieda	1:03:15
74.	Kevin Rai Sanchez	1:04:28
77.	Iban Verdugo	1:04:57
78.	Aritz Irigoien	1:05:09
79.	Araitz Jaka	1:05:11
81.	Alfredo Estrada	1:05:27
84.	Ismael L. de Goik.	1:05:55
87.	Unai Artieda	1:06:16
88.	Patxi Arakama	1:06:17
92.	Javi Beloki	1:06:56
95.	Alex Gonzalez	1:07:28
99.	Alex Uncilla	1:07:56
103.	Josema Leitza	1:08:29
109.	J. A. Salgado	1:09:27
113.	Iñigo Orradre	1:14:29
116.	Ioni Araña	1:15:34
120.	Juan Luis Maiza	1:17:31
123.	Agustin Larraza	1:17:37
125.	Patxi Atxa	1:18:18
EMAKUMEAK		
40.	Ainhoa Etxegarai	57:22
49.	Eneritz Karasatorre	59:06
51.	Maite Beregaña	1:00:10
66.	Andrea Aristu	1:02:48
75.	Maite Zabaleta	1:04:35
93.	Uxue Seminario	1:07:07
94.	Leire Igea	1:07:18
97.	Sarabe Arakama	1:07:46
101.	Ainara Galarza	1:08:16
102.	Maria Goikoetxea	1:08:24
110.	Zuriñe Argüelles	1:09:41
112.	Erkuden S. Martin	1:11:07
114.	Maite Urriza	1:14:30
119.	Andrea Razkin	1:17:19
121.	Leire Maiza	1:17:31
122.	Maialen Larraza	1:17:37
124.	Oihana Ganuza	1:17:59



Iker Palacios Andueza lakuntzarra, lehen sakandarra.

Urbasako autoen festa erraldoia

AUTOMOBILISMOA Arkaitz Ordoki faborito nagusiaren matxurak lasterketa zabalik utzi zuen. Miguel Gutierrez izan zen txapelduna, Daniel Jimenez 283 ehuneneko aterata. Iker Palacios lehen sakandarra izan zen, eta Mikel Mazkieran turismoetan laugarren

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Eguzkiak Sakanako automobilismoaren festarekin bat egin nahi izan zuen eta larunbatean Urbasa bete egin zen. Milaka zale hurbildu ziren Sakana Motorsport eskuderiak antolatutako XLIII. Urbasako Igoeraz gozatzeri. Zuhurren jarlekuak, bazkaria, eguzkitarako babesleak eta denetarioko eraman zituzten. Egunak aurrera egin ahala, ordea, lainoak azaldu ziren, Urbasako portuan gora lainoa azaldu eta txiri-miria hasi zen, baina horrek ez zuen motorzaleen festa oztopatu, eta Sakana Motorsport eskuderia pozik dago egunak izandako erantzunarekin.

Faboritoak, kale

Berriki Espainiako Mendi Igoeren Txapelketa irabazi duen Arkaitz Ordoki (NOVA NP-03) zen faborito nagusia. Urbasako

azken bi edizioen irabazlea denboraldiarekin pozik, eta Urbasan hirugarren aldiz jarraian irabaztearekin ginga jarri nahi zion denboraldiari. Entrenamenduetan denbora onena egin zuen (3:18.103), baina lehen mangan, irteera puntuan ateratzear zegoela, autoa geldirik geratu zitzaion. Ez aurrera, ez atzera. Autotik jaitsi behar izan zen eta asistentzia gunean matxura konpontzen saiatu. Javier Polancok (Formula Dicode FR) lasterketa utzi behar izan zuen, eta horrek aukerak eman zizkien arerioei.

ORDOKIREN MATXURAK IGOERA ZABALIK UTZI ZUEN. GUTIERREZ GAILENDU ZEN, OSO GUTXIGATIK"

Horrela, oso-oso borrokatua egon zen proba. Azkenean, Miguel Gutierrezek (Osella PA 21) irabazi zuen Urbasako Igoera (3:28.136), baina Daniel Jimenezekin (BRC B59) lehia oso estua izan eta gero; 283 ehuneneko eskas atera zizkion Gutierrezek Jimenez 3:28.419).

Erritmo falta

Sakana Motorsporteko Iker Palacios lakuntzarrak (BRC B52) denboraldia ongi prestatzeko ez duela behar bezalako baldintzarik izan aipatu zuen. Izpegin hirugarren izan zen, baina gero transmisioan matxura izan zuen eta geldirik egon da. "Justu beharrezko piezak Urbasarako iritsi dira. Beraz, erritmo falta dut, denboraldian ezin izan naitzelako aritu. Eta hori asko nabaritzen da. Esan daiteke autoa Urbasan probatuko dudala".

Nolanahi ere, gustura aritu zen, eta, azkenean, monoplazen sailkapenean bosgarren sailkatu zen (3:36.027), eta bere multzoan, hamargarren klasean hirugarren. Palacios lehen sakandarraren saria jaso zuen.

Turismoen sailkapenean Mikel Mazkieran pilotu altsasuarra (Seat 600 JTR) laugarren sailkatu zen (3:42.197), eta hamargarren denbora onena egin zuen. Aurretik car-krosean aritzen zen altsasuarrak aurten autoarekin debutatu du eta denboraldi oso ona ari da egiten. Bigarren sakandarra izan zen, eta bere mailan, lehen klasean, bigarren, Antonio Ortuñoren atzetik (3:39:302, Seat 600).

Beste sakandarrak

Gainontzeko sakandarrak dagoenez, turismoen mailan lehia izan zuten guztiak. Ander Gurmino (Renault Clio Sport) turismoetan 16. sailkatu zen, laugarren klasean laugarren (3:55.572); Alberto Villar (BMW E36) 18. sailkatu zen, laugarren klasean bosgarren (3:59.363); Delfin Goikoetxea (BRAND PRM Proto Alpine) 36. sailkatu zen, hirugarren klasean bederatzigarren (4:07.619); Asier Juanez (Renault Clio Sport) 40. postuan sailkatu zen, zazpigarren klasean bosgarren (4:09.892); Josu Olmos (Citroen AX) 44., zazpigarren klasean bederatzigarren (4:14.601); eta Iñaki Yaben (Citroen Saxo) 60., zazpigarren multzoan hamahirugarren (4:25.461). Asier Solisek (BMW E36) eta Odei Juangok (BMW E46) ezin izan zuten proba bukatu.



Bi pilotu emakume bakarrak.

Nafarroako Txapelketa

Urbasako Igoera Nafarroako Igoeren Txapelketarako azken proba puntuagarria zen, Ioar, Izpegi, Ibardin, Etxalar eta Lezaungo igoerekin batera. Turismoetan Bruno Scherer (Porsche 911 GT3) izan da finena, proba guztietan parte hartu eta gero (363 puntu), Jose Miguel Baquedanoren (BMW 320i, 220 puntu) eta Mikel Mazkieranen (Seat 600 JTR, 175 puntu) aurretik. Alberto Villar (BMW E36) zazpigarren sailkatu da (127 puntu). Monoplazetan Unai Arretxe (Speed Car GT 1000) izan da txapelduna (167 puntu), Iker Palaciosen aurretik (BRC B52, 89 puntu). Daniel Jimenez hirugarren sailkatu da (BRC B59, 54 puntu).



Ander Gurmino lehen olaztiarra izan zen.

"Urbasan lehiatzearekin amets bat bete dut"

MIKEL MAZKIARAN SEGURA PILOTUA

Mikel Mazkian (Seat 600 JTR) altsasuarra turismoen mailan laugarren sailkatu zen, scratchean hamargarren. **Iaz car-krosean aritzen zinen, aurtan eman duzun saltoa turismoen mailara. Zergatik?** Car-krosarekin Nafarroan ezin genuelako lasterketarik egin. Nafarroako Igoeren Txapelketan parte hartu nahi genuen, eta horregatik beste mota bateko autoa behar genuen. **Auto oso berezia eta polita duzu, Seat 600 JTR.** Nire asmoa zen monoplaiza bat ekartzea, baina auto hau erosteko aukera sortu zen, eta aitari, bereziki, asko gustatu zitzaion. Txasis tubularra du, eta alde horretatik, monoplaizekin antzekotasuna du. Tenerifetik ekarri genuen. Aurreko jabeekin harreman ona egin dugu, Urbasako Igoera ikustera etorri ziren. Asko gustatu zaie. **Autoak arreta pizten du. Jendea hurbiltzen al zaizu esatera?** Bai; azkenean, autoa oso ikusgarria da. Seat 600 bat da, baina berezia. **Gidatzeko orduan nolakoa da? Zaila?** Oso erraza egin zait gidatzeko modura moldatzea. Direkzioa oso zehatza du, eta hain txikia denez, carrarekin aritzearen antzeko sentsazioa dut. **Turismoekin lehiatzen zaren lehen urtea da eta denboraldi ederra egin duzu. Kontentu al zaude?**

Nafarroako Mendi Txapelketetan turismoetan hirugarren izan naiz eta oso pozik nago. **Espero al zenuen?** Banekien autoa oso lehiakorra zela, baina lehen denboraldian horren goian egotea ez nuen espero, egia esanda.



"AUTOA LEHIAKORRA DA, BAINA EZ NUEN ESPERO LEHEN DENBORALDIAN EMAITZA HAUEK IZATEA"

Car-krosarekin Urbasan ezin aritzearen pena zenuen. Zure lehendabiziko Urbasa espero zenuena izan da? Txikitatik etortzen nintzen Urbasara, eta arantza hori nuen. Ilusioa handia izan da; Urbasako igoeran aritzearekin amets bat bete dut. Etxean aritzea, jende ezagun askoren aurrean... pasada bat izan da.

Lasterketa hasi baino lehen oso urduri zeunden. Bai, hala egoten naiz hasi baino lehen, beti. Entrenamenduak hasita, lasaitu egiten naiz. **Entrenamenduetan 3:47 minutuko denbora egin zenuen, lehen mangan 3:42 eta bigarrean 4.17.** Bagenekien lehen manga denbora onena egiteko tartea zela, ondoren eguraldi kaxkarra iragarrita zegoelako. Eta hala izan zen. Bigarren mangan euria ari zuen, eta ez zuen estutzea

merezi. Zertarako? **Arkaitz Ordoki zen faboritua, baina matxura izan zuen.** Horrela dira lasterketak. Nik aurtan bi lasterketa ezin izan nituen bukatu. **Kuadrilla, gurasoak... denak zure ondoan zenituen.** Bai (kar-kar), egun polita izan zen, gogoratzekoa. Gurasoek sartu ziguten motorraren zaletasuna; beti etortzen dira. **Hemendik aurrera, zer?** Aurtan egin beharrekoa egin dugu, aurrekontuak ez du gehiago ematen. Oso eskertuta nago babesleekin. Ea hurrengo urtean hobeki egiten dugun.



Asier Juanez, Urbasan gora entrenamenduetan.



Bakaikuko Katxarro Eguna

MOTORRA Bakaikuko Bakarrekotxea elkartean VIII. Katxarro Egunean parte hartuko duten autoak, kamioiak, motorrak, bizikletak eta bestelako tramankulu guztien zain daude. Aurtan 10 urte beteko ditu klasikoek topaketak eta egunean parte hartzea animatu dituzte sakandarrak (ikus egitaraua agendan).



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

Nafarroako txapeldunak

PALA Asteburuan V. Nafarroako Foru Komunitateko Emakumezkoen Pilota Torneoko finalak jokatu ziren. Paleta gomako bi txapelak Sakanara etorri ziren. Bigarren mailan, Jare Camposek eta Arhane Garmendiak 20-12 irabazi zieten Arrosagaray- Irizustari. Lehen mailan, Inunciagak eta Larrazak Eciolaza eta Eguzkiza mendean hartu zituzten (15-10 eta 15-7).

2025/2026 Sakanako Tennis Ranking-a, martxan

TENISA Tenis Rubor klubak tenislari zaletu guztiendako antolatutako Ranking-ean 42 zaletuk eman dute izena. Hilero bi partida jokatu dituzte Zelandiko pistan. Aurten 42 neska-mutil trebatzen ari dira tenis eskolan, eta 18 helduen taldeetan

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

2025/ 2026 tenis denboraldia hasi da eta Tenis Rubor Klubean martxan daude. Berriki, urriaren 5ean, klubak 20 urte bete zituen. Horregatik, aurtengoa denboraldi berezia izango dela uste du Ricardo Cantero Fernandez presidentek. "Klubeko hainbat kidek Roland Garros torneora joateko asmoa dugu, ospakizun gisa. Ea zenbat animatzen garen" dio Canterok.

Helduak eta haurrak

Tenis Rubor Klubak bi atal ditu: 16 urtetik gorako kluba, eta 16 urte bitarteko neska-mutilen tenis eskola. Helduekin talde txikietan lan egiten dute. Hastapeneko taldeko monitorea Aitor Flores da, hobekuntza taldekoa Ricardo Cantero, eta lehiaketa taldekoa Iban Chaparro. Sei tenislari daude talde bakoitzean, guztira hemezortzi. Tenis eskolan 16 urte bitarteko 42 neska-mutil trebatzen dira Aitor Flores eta Jon Plissonneau monitoreekin. Denboraldia "indarberrituta, gogotsu" hasi dutela nabarmendu du Ricardo Canterok.

Pista

Helduen eta gaztetxoaren entrenamenduak Altsasu BHI-ko frontoian egiten jarraitzen du Tenis Ruborrek. Zelandiko tenis pistak aukera handiak eman dizkie; 16 urtetik gorako Sakanako Tennis Ranking-eko partida guztiak bertan jokatzen dira, eta federatu mailako bestelako partida eta txapelketak ere bai, tartean 35 urtetik gorako beteranoenak. "Altsasuko Zelandi tenis pista hobekuntza handia izan da, bestela ezingo genukeen federatutako partidariak jokatu, Sakanako Tennis Ranking-a ere ez. Sekulako aldea dago". Baina aire zabaleko pista denez, ezin dira bertan jarraikortasunez aritu, eta Altsasu BHI-n segitzen dute. "Horregatik, gure asmoa da in-



2025eko Ranking-eko irabazlea Zabalo izan zen, Plissonneau eta Canteroren aurretik.

"TENIS RUBORREK 20 URTE BETE DITU. INDARBERRITUTA, GOGOTSU GAUDE" RICARDO CANTERO

darra egiten jarraitzea Zelandiko pista estalia izan dadin. Institutuko pista ez da tenisean aritzeko guztiz egokia, baina ezin gara egiten duen eguraldiari begira egon, gaur Zelandin entrenatu edo Institutuan entrenatu dugun erabakitzeke".

Sakanako Ranking-a, martxan

Ikasturte berriarekin batera, 16 urtetik goragoko 2025/2026 Sakanako Tennis Ranking-a martxan da. Urrian hasi, eta ekainera bitartean jokatuko da. 42 tenislari eman dute izena, joan zen urtearen antzera. Ranking-ean hilean bi partida jokatzen ditu tenislari bakoitzak, eta emaitzen arabera sailkapenean gora edo behera egiten du, edo mantendu. "Adin guztietako tenis zaleei dago zabalik, eta helburua tenisa sustatzea eta jokalarien artean giro ona sortzea. Eta hala izaten

da. Sakana guztiko tenislariak elkartzen gara, baita Gipuzkoa-ko zenbait zaletu ere bai. Txapelketa polita da".

Joan zen urteko Rankingeko irabazlea Iñigo Zabalo izan zen. Sari polita jaso zuen, trofeoa, kirol-jertsea, kirol-ekipamendua eta Völk pilota potea. Bigarren sailkatuak, Jon Plissonneauk, kirol ekipazio osoa eta Völk pilota potea eskuratu zituen, eta hirugarren sailkatuak, Ricardo Canterok, Idiazabal gazta, ardo botila eta Völk pilota potea.

Irakasleak trebatu

Gaztetxoaren tenis eskolan gustura dabilta neska-mutilak. Maiatz aldera txapelketa jokatzen dute, ilusio handiz hartzen dutena. Sakandarrez gain, Araiako ikasleak daude. Ildo honetan, Tenis Ruborrek etorkizunera begira bi monitore berri trebatzeko arduratu du bere gain: Ainhoa Mazkian eta Saioa Rodriguez. "Interesa eta gogoia dute, eta klubak aurrera egin dezan hori da behar dena. Gainera, emakumeak ere irakasle izatea sustatu nahi dugu, emakumeek kirolean tokia izan dezaten".

Eskolako txapelketako irabazleak



Perez eta R. de Erentxun. UTZITAKOA

Benjaminak

2024/2025 Altsasuko Eskolako Tennis Txapelketan tenis eskolako 16 urte bitarteko neska-mutiek parte hartu zuten. Benjaminenetan, Iñigo Ruiz de Erentxun eta Olaia Perez sailkatu ziren finalerako, eta lehena gailendu zen.



Macia eta Amillano. UTZITAKOA

Haurrak

Eskolako Tennis Txapelketako haurren mailako txapelketa borrokatua izan zen. Partida politak ikusi ziren. Azkenean, Unai Lizarraga eta Anuk Rodriguez sailkatu ziren finalerako, eta Anuk Rodriguez izan zen txapelduna.



Barandalla eta Vergara. UTZITAKOA



Lizarraga eta Rodriguez. UTZITAKOA

Kadeteak


Kadeteen mailako Altsasuko Udal Eskolako Txapelketa ere oso borrokatua izan zen. Izei Barandallak eta Andoitz Vergarak lortu zuten finalera heltzea. Bien arteko norgehiagokan Vergara nagusitu zen.

Gazteak

Adinean gora eginez, tenis maila goraka doa eta aurreko denboraldiko gazteen mailako txapelketa horren isla izan zen. Gazteetan, Aimar Macia eta Urko Amillano iritsi ziren finalera, eta Amillano izan zen gailendu zena.

Iban Chaparro, Zirkuituan ederki

Tenis Ruborreko Iban Chaparrok eta Jon Plissonneauk lan itzela egin zuten 36. Nafarroako Zirkuitu Absolutua-G3 Zuasti 2025 federatuen txapelketan. Hirugarren multzoko finalerako bidean, sakandarrak elkarren kontra lehiatu ziren finalerdietan, eta Iban Chamorro lortu zuen finaleko txartela. Final estu eta borrokatuan, Chamorro Gonzalo Ovejero izan zuen aurkari. Lehen seta Chamorro irabazi zuen, bigarrena Ovejero, eta bukaerako super tie-break-ean Ovejero gailendu zen, 10-7. Beraz, Chamorro txapeldunordea izan zen. "Meritu handia du, Iruñerrian tenisean sekulako maila dagoelako. Txiki-txikitik jokatzen dute, tenis pistak dituzte eskura, eta guk, duela gutxira arte, ez dugu ezer izan. Beraz, Iban Zirkuituko txapeldunordea izateak meritu handia du" azaldu du Ricardo Canterok.



Chaparro eta Ovejero. UTZITAKOA



Ane Martija eta Saioa Lara, dantzaria, 'Iraila' bideokliplean. UTZITAKOA

Ane Martijaren 'Iraila', eta hasiera berriak

Ikasturte berriaren hasierarekin kanta eta bideoklip berria kaleratu ditu Etxeberriko abeslariak. "Datorrenaren" aurrerapena dira; pianoarekin sortzen hasi da, eta horrekin akustikoa alde batera utzi eta oinarri elektronikoagoa sortu du

Erkuden Ruiz Barroso ETXEBERRI
Iraila "betidanik" hasiera garaia dela sentitu izan du Ane Martija abeslariak. "Eskola garaian, irailan hasten ginen, eta magisteritzaz ikasi dudanez, udan jai-edo izaten dut, eta irailan beriz ere errutina horretara bueltatzea da". "Zalantzak edo beldurrak" sortzen zaizkiola aitortu du, eta sentimendu horiek abesti batean

adierazi nahi izan ditu, irailaren 19an kaleratu zuen *Iraila* abestian, hain zuzen. Abestiarekin batera bideoklipa mustu zuen ere. "Ez nuen abesti tristea izatea nahi, nire burua nahiko baikortzat jotzen dut, eta beldur horiei aurre egiteko abesti baikorra idatzi nahi nuen. Azkenean, hori da *Iraila*". Abestia aurreko urteko irailan sortzen hasi zen, "aurrekoan pen-

tsatzen eta, bai, aurreko urteko irailan idatzi nuen". Abestia hasiera berri bat dela esan daiteke, "datorrenaren aurrerapena".

Pianoa
Orain arte Martijak gitarrarekin konposatu ditu abestiak, "eta nirekin lanean egon den produktoreak, Leyre Aranguren, komentatu zidan pianoarekin pro-

batzeko, beste melodiak eta soinuak probatzen hasteko". Pianoa "izugarri maite" duela esan du abeslariak, eta jotzen hasi eta *Iraila* sortu zuen. "Kaleratu dugunaren guztiz kontrako zen; gauza da Leirek hartu zuela, buelta eman zion, eta nolabaiteko soinu elektroniko hori sortu zuen". "Izugarri" gustatu zitzaion doinu berri hori, "eta hortik tiratu behar genuela esan nion". Konfort zonaldeetik aterada: "Gitarra nolabait zen arriskua ez hartzeko modu bat; babes moduko bat. Izan da pianoa hartu, eta orain abesti gehienak pianoarekin sortzen ditut". Gustua hartu dio.

Abestiarekin batera bideoklipa kaleratu du Martijak, eta abestiaren bideoan ere bere ibilbidean ohikoa zenekotik pixka bat urrundu da: "Nik bideoklipak egiten nituen gitarrarekin edo *Guztia soberan* abestian pilotariekin egiten nuen, baina honekin hartu nuen dantzarekin eta bideokliparekin zerbait adierazi nahi nuela". Dena dela, hasierako asmoa ez zen abeslariak hainbeste dantzatzea: "Bideoan agertzen den dantzaria ezagutzen nuen, Saioa Lara, nire laguna da, eta aurreko udan bere antzerki bat ikusteko aukera izan nuen; izugarri gustatu zitzaidan. Antzerki dantza bat zen, eta nik burua nuen *Iraila*-rako bideoklipa egitea, eta Saioaren antzerki hori etorri zitzaidan burura". Parte hartu nahi zuen galdetu zion, eta "segituan" baietz esan zion. "Hau ez daki orain arte inork, baina bideokliplean berez hiru izan behar ginen, eta azken momentuko gauza batengatik hirugarren horrek ezin izan zuen parte hartu, eta horregatik nik dantzatzeko dut pentsatzen nuena baino gehiago".

Iraila abestiarekin "datorrenaren" aurrerapena egiten du

Martijak: "Diska bat prestatu dut, baina oraindik ez dakit noiz aterako den. Gutxi gora behera data bat dago, baina poliki-poliki". Doinu eta disko berri horren abestiak "poliki" kaleratzen joango dela aurreratu du abeslariak.

Zuzenekoak
Aurreko urtean kontzertu asko eman ondoren, uda honetan "gutxi" eman dituela esan du abeslariak: "Nahita egin nuen. Aurreko urtean eztarriarekin nahiko nekatuta bukatu nuen, arazoak izan nituen, eta erabaki nuen aurten lasaiago hartzea". Diskoa ere buruan zuenez, "horrekin lanean topera jartzeko" baliatu zuen ere. Kontzerturen bat eman du ere, "askutikoan".

Doinu eta lan berriarekin, kontzertu kontzeptu berria egingo duen galdetuta, Martijak azaldu du buruan badaukala "zuzenekoetarako beste formatu bat", ez hain akustikoa dena. "Baina horiek izango dira behin diskoa kaleratuta prestatzekoak". Abeslariak egiten duen musika berriaren berri haren Instagram kontuaren bidez (@ane.martija) eta plataformen bidez jarrai daiteke.

"EZ NUEN ABESTI TRISTEA IZATEA NAHI, NIRE BURUA NAHIKO BAIKORRA IKUSTEN DUDALAKO"

"BIDEOAREN DANTZAREKIN ETA BIDEOKLIPA BERAREKIN ZERBAIT ADIERAZI NAHI NUEN"

ABBaren 'Mamma mia' eta beste, Irurtzunen

Ikuskizuna eman zuten Irurtzungo eta Elkarrekin abesbatzek eta Doinua Musika Bandak

IRURTZUN
Waterloo, Gimme Gimme, Chiquitita, Dancing Queen... entzun ziren urriaren 4an, Irurtzungo kiroldegian, Irurtzungo Abesbatzak, Berriozarko Elkarrekin Abesbatzak eta Berriozarko Doinua Mu-

sika Bandak elkarrekin eman zuten *ABBA Total-Osoa* musika emanaldi "ahaztezinean". Fermin Idareta Irurtzungo abesbatzaren zuzendariaren esanetan. 500 bat lagun bildu ziren talde suediarren abesti ezagunenekin "gozatze-

ko". Kiroldegian eszenatoki "ikusgarria eta xehetasun guztiekin" prestatu zuten, eta publikoa ere guztiz "murgildu" zen.

Kontzertua *Mamma Mia* kantu ospetsuarekin bukatu zuten, baina ikuskizunari amaiera eman aurretik Idareta, zuzendari gisa, eskerrak eman zizkien ikuskizunari "arrakastatsua izan zedin ahalbidetu zuten pertsona guztiei"; Jarein Ocaña bandako eta Cristina Sevillano Elkarrekin-eko zuzendarien lan "bikaina" ere eskertu zuten.



'ABBA Total-Osoa' ikuskizuna, Irurtzunen. UTZITAKOA



'Heptamerona', Altsasun

Margarita Nafarroakoak XVI. mendean idatzitako liburua berpiztu zuten urriaren 4an, Nafar Ateneoak antolatutako egitasmoan: 'Heptamerona: Borzgarren Egunaren Irakurraldia'. Besteak beste, euskaratutako bosgarren atalaren irakurraldi publikoa egin zuten Sakanako eta Nafarroako arlo politikoa, sozial eta kulturalera hainbat pertsonen.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Nola aukeratu hobekien geratzen zaigun berokia

Sakanan berokia hemendik gutxira beharrezkoa izanen da berokia. Gorputz bakoitza ezberdina da, horregatik beroki bat dago gorputz bakoitzerako. Espero dut gida honen bidez zurea ezagutuko duzula.

A LERROA: Ezin hobeak dira aldaka zabalak disimulatzeke, kanpai efektuari eta baxu zuzenari esker. Garrantzitsua da aldaken azpitik iristea, hau baina motzagoa bada gehiago nabarmentzen delako.

Soinekoa edo gona badaramazu ezin da inoiz hau baina luzeago izan.

GORPUTZ ZUZENAK: Forma zirkularra duten berokiak ezin hobeak dira gorputz zuzenatarako, aldakatan zabaldu egiten dira eta irudi polita sortzen dute. Osoa altua ez bazara ere mesede handia egiten dute, zangoek estilizatuagoak edo luzeagoak diruditelako. Praka estuekin eta gonak dira aukerarik onena, plus bat nahi izan ez gero, konbina ezazu takoizko zapatekin edo botekin.

BATA BEROKIA: Bikaina neska altuentzat edo bizkar zabala dutenentzat, gainera, gerrikoak gerria definitzen laguntzen du eta horri esker gure kurbak markatu eta ez dutenei kurbak egiten dizkie. Egia esan beroki mota honek edozein gorputzari mesede handia egiten dio.

LUZEA XXL: Neska altuentzat dago bideratuta. Jakina, txikiek ere jarri dezakete, baina ez da hobekien geratuko zaiona, txikiagoaren itxura egingo diolako. Edozer gauzarekin jantzi dezakezu, zapata takoidunak eta planoak ere, praka zabalak ekiditen baditugu hobe.

DOITUA ETA LABURRA: Txikia bazara, gehien lagunduko dizuten berokiak, izterraren altuerako beroki estu eta laburrak izango dira. **VITXURAKO EDO ZUZENA:** Beroki hau perfektua da gorputz handia duten neskentzat. V Lerroak eta ebaki zuzenek enborraren tamaina disimulatzen dute, baina kontuz, hori lortzeko modurik hoberena irekia eramatea da.

Lazkozek irabazi du txapelketako lehen saioa

Auritzen hasi zen 2025eko Nafarroako Bertsolari txapelketa urriaren 4an. Bertsolari etxarriarrak irabazi zuen, hurrengo faserako sailkatuz; Saats Karasatorre bigarren sailkatu zen. Idoia Granizo biharko saioan sartuko da txapelketan

E. C. M. eta E. R. B. ETXARRI A.

"Pozik" dago Eneko Lazkoz 2025eko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen fasearen lehen saioa irabazi ondoren; azaroaren 1ean Agoitzen izanen den finalaurrekoetarako txartel zuzena lortu du etxarriarrak. Saats Karasatorre bigarren sailkatu zen, baina lehen fasea amaitu arte itxoin beharko du hurrengo faserako sailkatu den jakiteko. Bihar, urriak 11, Idoia Granizo Uribarrena bertsolari altsasuarrak Mutiloako kultur etxean kantatuko du (17:30ean), Beñat Astiz Isasi, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Jabi Lezaun Landa, Julio Soto Ezkurdia eta Sarai Robles Vitas bertsolariekin batera; Iratxe Legarra Nuin izanen da gai jartzailea.

Auritzen jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehen fasearen lehen saioa, 120 bertsozaleren aurrean. Lazkozek GUAIXE IRRATIA-n azaldu duenez, "ez da beste mundukoa izan; hotz harrapatzen zidan txapelketak, eta kontzentrazio aldetik kostatu zitzaidan". Gero "altxatu" zen, eta kantatzen zuenean "bertsotan eroso" aritu zela esan du. 357,5 punturekin saioaren irabazlea izan zen, eta hurrengo faserako txartel zuzena lortu du: "Pozik; ahal dena egiten dugu". Hurrengo faserako zuzenean sailkatzeak "lasaitasun pixka bat" ematen duela aitortu du etxarriarrak: "Badakizu noiz eta non kantatuko duzun. Denbora pixka bat daukagu lan egiteko".

Lehen saioa izateagatik puntuazio altuak edo baxuak jartzen dituzte? "Lehen saioa denendako da: antolatzaileendako, gai jartzaileendako, epaileendako... Epaileek erreferentziarik ez daukate, baina beti ez da epaile talde berdina, orduan, ez dakigu". Hurrengo saiotan ikusi beharko dela gaineratu du Lazkozek, "alderatuko dugu".



Eneko Lazkoz kantatzen Aurizko saioan; ondoan, Saats Karasatorre. NBE

"LASAITASUN PIXKA BAT EMATEN DU; BADAKIZU NOIZ ETA NON KANTATUKO DUZUN"

Saats Karasatorrek ere Aurizko saioan kantatu zuen, eta 328,5 punturekin bigarren sailkatu zen. Haren atzetik, Eki Mateorena (301,5), Egoitz Gorosterrazu (293,5), Urko Gartzia (287) eta Aitor Irastortza (283) sailkatu dira. Lehen fasea amaitu arte itxoin beharko dute finalaurrekoetarako sailkatzen diren jakiteko.

Karasatorre eta Lazkoz elkarrekin joan ziren saiora, eta tarte horretan saioari buruz hitz egiteko aukera ematen diela esan du GUAIXE IRRATIA-n: "Alde horretatik polita eta erraza da; ez da berdina elkarrekin joatea edo bakarrik; norberak bere bi- zipenak eta saioa komentatzeko ongi dago". Saioa "ongi" joan zela esan du: "Igual saioan zehar kontzentrazioari eustea kostatu zitzaidan". Hortaz, zortziko handian "ongi" hasi zela kontatu du, bai-

na zortziko txikian "irristada txiki bat" eduki zuela aitortu du: "Kontzentrazio aldetik, bertso aldetik ez dakit, ez dakidalako ongi zer kantatu nuen, eta normalean hori izaten da kontzentratuta nagoelako momentu horretan". Hamarreko txikian ohartu zen kontzentrazioa joan zitzaidala, baina ganbara tartea "ongi etorri" zitzaion berriz zentratzeko. Ondoren, "eroso" sentitu zela azaldu du: "Azkeneko tarte horretan nahiko lan txukuna egin nuela uste dut". Puntuazio aldetik "pozik" dago, eta kontzentrazio aldetik "badakigu zer landu".

Lehen fasea

24 bertsolari hasiko dira txapelketan, eta hemezortzi sailkatuko dira finalaurrekoetara. Txapelketak bihar jarraituko du Mutiloako kultur etxean, eta Idoia Granizo altsasuarra ariko da. Urriaren 18an, larunbata (17:00etan) lehen fasearen hirugarren saioa izanen da, Iruritan, eta urriaren 26an, igandea (17:30ean) Los Arcosen izanen da lehen fasearen azken saioa; besteak beste, Ekain Alegre altsasuarrak kantatuko du.

Udako argazki lehiaketa IRABAZLEAK



ARGAZKI ONENAREN SARIA




Irabazlearen pisu adineko **Lacturale** litro esne:
'Ibiltariak', Laura Olmos Aristorena.



Laura Estetika zentroan gorputz edo aurpegi masajea: 'Izoztutako kobazuloa', Aitor Puerta.



PARTEHARTZAILEEN ARGAZKI ONENA



PUBLIKOAREN BOZKEN SARIA



Guaixe Fundazioaren lotea;
'Sakanako Irla', Iban Verdugo Markotegi.



Alberto Ongay, ezkerretan, Satrustegiko frontoi berriaren mustutze ekitaldian. UTZITAKOA

"Ongi dago horrelako toki estali bat izatea"

Alberto Ongay Satrustegiko pilotariak lehenengo pilotakadak herrian zegoen horma bateko frontoitxo batean eman zituen, aitarekin; herriko frontoia 2008an eraiki zuten. Abuztuan estalpearen eta, ondorioz, frontoi berriaren mustutzea egin zuten

Erkuden Ruiz Barroso SATRUSTEGI

1 Noiz hasi zinen pilotan?

7 urte nituenetik hasi nintzen Irurtzungo Klubean entrenatzen, baita aitarekin herrian ere.

2 Herriko frontoian entrenatzen zenuen?

Gaur egun dagoen frontoia ez zen existitzen. Bazegoen frontoi

oso txiki bat, herriaren goikaldean, eta hor hasi nintzen. Aitarekin ia egunero joaten nintzen. Frontisera eta gutxi gehiagora jokatu zitekeen, pareta bakarrazuen. Lehenengo obra 2008an egin zen.

3 Eta bertan entrenatzen hasi zinen?

Ez; ez da entrenatzeko frontoi bat. Gainera, nik 2008an de-

butatu nuen. Eguraldi ona egiten zuenean eskuak berotzeko erabiltzen nuen. Orain bezala, estali dute, baina ez da frontoi itxi bat; ez da lehiatzeko erregelamenduzkoa.

4 Nolakoa izan behar du?

36 metro izan behar ditu eta kontrakantxak lau metro. Satrustegikoak zazpi koadro ditu

eta kontrakantxako lurzorua ez dute zementuzkoa egin; zutabeak bi metro eta erdira daude eta lau edo gehiago metrora egon behar dute. Estali da gehienbat haurrendako euria egiten badu bertan egoteko. Goxuara eta rake tekin edo palarekin tenisko pilotarekin jokatzeko ematen du. Eskuaren entrenatzeko aukera ematen du ere.

5 Bertan jokatu duzu?

Bai, eskuaren pixka bat entrenatzeko oso ongi dago, eta lagunekin goxuara jokatzeko ere.

6 Frontoi berria abuztuko festetan mustu zenuten.

Urtero festetan pilota jaialdi bat egiten dugu, eta aurtengoan bertan egin dugu, baina frontoia mustutzeko baliatu genuen ere.

7 Zer moduz joan zen?

Ongi, aurreko urtetan bezala atera zen, partidua nahiko ongi joan zen. Mustutzeko hitz batzuk esan ziren, eta zinta moztu genuen.

8 Satrustegin pilota afizioa dago?

Bai. Herri txiki bat da, eta gehienak nagusiak dira. Adineko jendeak afizioa du. Gazteen artean, bakarrik dago bat pilotara joaten dena; Irurtzungo eskolan dago. Nire ilobak ere jokatu du, Uharte Arakilen bizi da, eta etortzen denean jokatu dugu.

9 Beharrezkoa da horrelako frontoi bat izatea?

Nik uste dut baietz. Udan herri bazkari bat egin genuen bertan eguzkiak jotzen zuelako, eta itzala ematen du. Neguan goiz iluntzen duela eta euria egiten duenean bertan egon daiteke; argia

dago, eta jarduerak asko egin daitezke bertan. Ni ere joaten naiz serie eta tabata batzuk egitera; aprobetxatzen dut. Festetan eguraldi txarra egiten duenean bertan jar daiteke eszenatokia, baita antzerkiak ere. Edozer gauzarako hor dago. Oso ongi dago horrelako toki estali bat izatea.

10 Pilota zaletasun gehiago sortuko du?

Ez dut uste; nik uste hori ez dela aldatuko. Izan daiteke ondoko herrietatik egunen batean goxuara jokatzera etortzea, baina bestela ez dut uste. Gainera, esku pilota jaisten ari da. Futbolak dena jaten du, eta 12 edo 13 urterekin pilota uzten dute eta futbolera joaten dira. Pilotan txikitan hasi behar zara; eskuarekin jokatzeko denez, asko entrenatu behar da. Horregatik batzuk uzten dute. Lehen egun osoa pasatzen genuen frontoian, eta eskuak gogortzen ziren, baina orain entrenatzeko bi orduak egoten dira eta nahiko. Behin uzten duzunean, nik adibidez, bi astez jokatu gabe eta nabaritzen dut eskuak bigundu zaizkidalako. Edozein kiroletan bezala, gustatzen bazaizu, egin behar duzu. Pilotak ere dauka eskuarekin ari zarela.

11 Nola ikusten duzu denboraldia?

Abenduan 40 urte beteko ditut eta aurtengo jarraituko dut, eta hurrengo urterako ikusiko dut. Afizionatuengo mailan lehiatzeko gogor entrenatzea eskatzen du. Orain, Nafarroako Bikote Txapelketan ari gara, urtarrilean Espainiako Klubeko Arteko Txapelketa hasiko da eta gero Irurtzungo.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabete baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena

Abizenak

NA/IFZ

Helbidea

Herria

Telefono zenbakia

Emaila

Bankuko kontu korronte zenbakia:

ES _____



guaixe
fundazioa

948 564 275

618 882 675

admin@guaixe.eus

www.guaixe.eus

